

# GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA- ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN (PICE-IGHP)

## I. ERANSKINA. DIAGNOSIA

Gernika-Lumon, 2014ko abenduan





<b>1</b>	<b>ESPARRU TEORIKOA</b> .....	<b>9</b>
1.1	DEFINIZIOAK .....	9
1.2	BIOSFERA ERRESERBEN ETA UBE-REN GARAPENAREN KRONOLOGIA .....	11
1.3	AURREKO EGITASMOAREN EBALUAZIOA 1997-2007 .....	13
<b>2</b>	<b>METODOLOGIA</b> .....	<b>15</b>
<b>3</b>	<b>DIAGNOSIA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN</b> .....	<b>18</b>
3.1	ERAGILEAK .....	19
3.1.1	PLANAREN IKERKETA-ALORRETAKO FUNTSEZKO ERAGILEAK .....	19
3.1.2	SOZIOGRAMA ETA ERAGILEEN ARTEKO HARREMANAK .....	20
3.1.3	ALOR BAKOITZEKO ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIO-BIDEAK.....	23
3.1.4	LANKIDETZA-SAREAK ETA SINERGIAK .....	24
3.1.5	GIZARTE-ERAGILEEN ETA TOKIKO BIZTANLERIAREN PARTE-HARTZERAKO KANALAK ....	25
3.1.6	LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK .....	26
3.2	INFORMAZIO-, KOMUNIKAZIO-, DIBULGAZIO- ETA INTERPRETAZIO-SISTEMAK .....	27
3.2.1	BALORAZIO PARTAIDETUA.....	27
3.2.2	INFORMAZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA.....	28
3.2.3	NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIOA .....	31
3.2.4	LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK .....	36
3.3	GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA: HEZKUNTZA-TESTUINGURU FORMALA ETA EZ-FORMALA.....	37
3.3.1	BALORAZIO PARTAIDETUA.....	38
3.3.2	GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZARAKO ESKAINTZA .....	39
3.3.3	LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK .....	49
3.4	PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA.....	50
3.4.1	BALORAZIO PARTAIDETUA.....	50
3.4.2	DAGOEN PRESTAKUNTZA-/GAIKUNTZA-ESKAINTZA.....	51
3.4.3	GIZARTE-ERAGILE NAGUSIEN GARAPEN IRAUNKORRERAKO PRESTAKUNTZARAKO/GAIKUNTZARAKO BEHARRAK .....	56
3.4.4	LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK .....	57
3.5	IKERKETA ZIENTIFIKOA.....	58

3.5.1	IKERKETA-ZENTROAK .....	58
3.5.2	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBARI BURUZKO EKOIZPEN ZIENTIFIKOA .....	61
3.5.3	IKERKETAREN ETA KALITATEAREN EBALUAZIOA .....	67
3.5.4	IKERKETAREN APLIKAGARRITASUN-MAILA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN PLANGINTZAN ETA KUDEAKETAN .....	67
3.5.5	GARAPEN IRAUNKORRERAKO KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA HOBEA LORTZE ALDERA, DATUAK LORTZEKO IKERKETA ZIENTIFIKOEN ETA JARRAIPENEN BEHAR ESTRATEGIKOAK .....	68
3.5.6	EZAGUTZA ZIENTIFIKOA ERRESERBAREN KUDEATZAILEEI, TOKIKO ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAGILEEI ETA, ORO HAR, BIZTANLEEI HELARAZTEKO BIDEAK .....	69
3.5.7	LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK.....	70
3.6	NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIOA ETA TURISMO-ERABILERA .....	71
3.6.1	BALORAZIO PARTAIDETUA .....	71
3.6.2	TURISMO-SEKTOREKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK .....	72
3.6.3	NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIORAKO ETA ERABILERARAKO TURISMO-ESKAINZAREN ERAGILEAK.....	73
3.6.4	NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIORAKO ETA ERABILERARAKO TURISMO-ESKAINZAREN INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK .....	74
3.6.5	LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK.....	75
3.7	URDAIBAIREN DIAGNOSI SOZIOEKONOMIKOA.....	76
3.7.1	BIZTANLERIA.....	76
3.7.2	EGITURA EKONOMIKOA .....	77
3.7.3	TURISMOA.....	79
3.7.4	BASERRI-GIROKO URDAIBAI .....	79

### AKRONIMOEN ZERRENDA

EA21	Eskolako Agenda 21
SEEZ	Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroa
GIH	Garapen iraunkorrerako hezkuntza
UBE	Urdaibaiko Biosfera Erreserba
IRAES 21	"Iraunkortasunerako eskola" izendapena jaso duten Euskadiko ikastetxeen sarea
GIIHK	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko Unesco Katedra
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
EJ	Eusko Jaurlaritza
HAEE	Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea
JSHGP	Jarduera Sozioekonomikoen Harmonizaziorako eta Garapenerako Plana
EKPZ	Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea
MD	Madariaga dorretxea
UBC	Urdaibai Bird Center
UPV-EHU	Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea

### ADIERAZLEEN ZERRENDA

#### ERAGILEAK

ER.1	Planaren funtsezko eremu bakoitzeko eragile kopurua.
ER.2	Identifikatutako eragileen lurralde-kokapena.
ER.3	Soziograma.

#### INFORMAZIO-, KOMUNIKAZIO-, DIBULGAZIO- ETA INTERPRETAZIO-SISTEMAK

IN.1	Eragileen balorazioak honako hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio-sistemaren kalitatea.</li> <li>- Dibulgazio-materialen eta -argitalpenen kalitatea</li> <li>- Seinaleztapen-sistemaren kalitatea.</li> <li>- Natura- eta kultura-ondarearen interpretazio-sistemaren kalitatea (elementuak eta teknikak).</li> <li>- Informaziorako-dibulgaziorako-interpretaziorako ekipamendu-sistemaren kalitatea.</li> <li>- Informazioan eta interpretazioan lan egiten duten eragileen arteko koordinazio-maila.</li> </ul>
IN.2	Sartzeko errepidetik seinalizatutako ekipamenduak.
IN.3	Ekipamenduaren kanpo-seinaleztapen egokia.
IN.4	Informazio-ekipamenduak Urdaibaiko Biosfera Erreserban.
IN.5	Informazio-ekipamenduen erabiltzaile kopuruaren bilakaera.
IN.6	Interpretazio-zerbitzuak eta -ekipamenduak.
IN.7	Interpretazio-eskaintza, eragileen izaera juridikoa kontuan hartuta.
IN.8	Jardunbide egoki iraunkorrak Erreserbako interpretazio-zerbitzu eta -ekipamenduetan.
IN.9	Informazio- eta interpretazio-ekipamenduen erabilerraztasuna.
IN.10	Segurtasuna informazio- eta interpretazio-ekipamenduetan.
IN.11	Interpretazio-eskaintza, jorratutako gaia kontuan hartuta.
IN.12	Interpretazio-eskaintza, nori zuzenduta dagoen kontuan hartuta.
IN.13	Interpretazio-zerbitzuen eta -ekipamenduen erabiltzaileen jatorria.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA: HEZKUNTZA-TESTUINGURU FORMALA ETA EZ-FORMALA

GH.1	Eragileen balorazioak honako hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Garapen iraunkorrerako hezkuntzan jarduten duten eragileen arteko koordinazio-maila.</li> <li>- Materialen eta baliabide didaktikoen kalitatea.</li> <li>- Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren kalitate orokorra UBEn.</li> </ul>
GH.2	Eragileen balorazioak honako hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraunkortasunaren integrazioa Urdaibaiko ikastetxeetako hezkuntza-/curriculum-proiektuetan.</li> <li>- Iraunkortasunaren integrazioa Urdaibaiko ikastetxeetako antolakuntza- eta funtzionamendu-araudietan.</li> <li>- Iraunkortasunaren integrazioa ikasgelarako programazioetan.</li> <li>- Ikastetxeetan egiten diren garapen iraunkorrerako hezkuntza-programen balorazioa.</li> <li>- Ikastetxeetan egiten diren garapen iraunkorrerako hezkuntza-programen kalitatearen balorazioa.</li> </ul>
GH.3	Eragileen balorazioak honako hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeen eskura dauden garapen iraunkorrerako ekipamenduen eta hezkuntza-eskaintzaren kalitatea.</li> <li>- Ondoz ondoko hezkuntza-etapen artean dagoen koordinazio-maila.</li> <li>- Ikastetxeen eskura dauden materialen eta baliabide didaktikoen kalitatea.</li> <li>- Ikastetxeetan egindako garapen iraunkorrerako hezkuntzaren lotura-maila UBerekiko.</li> <li>- Hezkuntza formaleko ikastetxeetan eskaintzen den garapen iraunkorrerako hezkuntzaren kalitate orokorra.</li> </ul>
GH.4	Urdaibaiko Biosfera Erreserban dauden udalerrietako ikastetxeak.
GH.5	Garapen iraunkorrerako hezkuntza-programak eskaintzen dituzten ekipamendu autonomoak (hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formalerako eskaintza).
GH.6	Gizarte- eta ingurumen-arloko hezkuntza-jarduera espezializatuak eskaintzen dituzten ekipamenduak (hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formalerako eskaintza).
GH.7	Hezkuntza-programetan garatutako gaiak.
GH.8	Hezkuntza-programen hartzaileak zer motatakoak diren.
GH.9	Garapen iraunkorrerako hezkuntzarako programa nagusiak testuinguru formalean.
GH.10	"Iraunkortasunerako eskola" bereizgarri gorena jaso eta IRAES 21 sarean parte hartzen duten ikastetxeak.
GH.11	Garapen iraunkorrerako hezkuntzan gehien landutako gaiak.
GH.12	Urdaibaiko ikastetxeetan lehentasunez landu beharreko gaiak (partaidetza-prozesuan landutakoak).
GH.13	Urdaibaiko ikastetxeetan egindako garapen iraunkorrerako hezkuntzarako jarduerak zer motatakoak diren.
GH.14	Eskolako Agenda 21en ERRONKA nagusiak. Indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak.

PRESTAKUNTZARAKO ETA GAIKUNTZARAKO ESKAINTZA

GA.1	Eragileen balorazioa gizarte-eragile nagusien garapen iraunkorrerako prestakuntzari/gaikuntzari buruz.
GA.2	Garapen iraunkorrerako prestakuntzaren/gaikuntzaren batez besteko maila Erreserban (eragileen balorazioa).
GA.3	Garapen iraunkorrerako prestakuntza/gaikuntza egiten duten eragileak Urdaibaiko Biosfera Erreserban.
GA.4	Garapen iraunkorrerako prestakuntza-/gaikuntza-jardueren ehunekoak, prestakuntza-/gaikuntza-jarduera guztiekin alderatuta.
GA.5	Garapen iraunkorrerako prestakuntza-/gaikuntza-jarduerak, zer gai jorratu den kontuan hartuta. 2013/14 eskaintza.
GA.6	Garapen iraunkorrerako prestakuntza-/gaikuntza-jarduerak, nori zuzenduta dauden kontuan hartuta. 2013/14 eskaintza.
GA.7	Garapen iraunkorrerako prestakuntza-/gaikuntza-jarduerak, zer eragilek eskaintzen dituen kontuan hartuta. 2013/14 eskaintza.
GA.8	Partaidetza-prozesuan eragileek adierazitakoaren arabera, ase gabeko egungo prestakuntza-/gaikuntza-beharrak.

IKERKETA ZIENTIFIKOA

IZ.1	Eragileen balorazioak honako hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Urdaibairi buruz egindako ikerketaren kalitatea.</li> <li>- UBeren lurraldearen kudeaketarako eta gobernantzarako ikerlanak zer mailatan aplikatu diren zuzenean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoaren transmisio-kanalen nahikotasuna/egokitasuna kudeaketarako eta gobernantzarako.</li> </ul>
IZ.2	Lanak Urdaibaiko Biosfera Erreserban eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbarentzat egiten dituzten ikerketa-zentro nagusiak.
IZ.3	Urtero Erreserbari buruz argitaratutako artikulu zientifiko kopurua, 1984-2013.
IZ.4	Artikulu zientifikoaren banaketa, kontuan hartuta zer inpaktu-indize duten horiek argitaratu dituzten aldizkariak.
IZ.5	Doktorego Tesietan (EHU) eta Master Proiektuetan (EHU) aurkeztutako artikulu zientifikoaren banaketa.
IZ.6	Urdaibairi buruz EHU aurkeztutako Doktorego Tesi kopurua, 1984-2013.
IZ.7	UPV/EHUko Master Ofizialen Programetan Urdaibairi buruz aurkeztutako master-proiektuen kopurua.
IZ.8	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedrako ikerketarako laguntza jaso duten proiektuak.
IZ.9	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedrako ikerketarako laguntza jaso duten proiektuen gaikako banaketa.
IZ.10	Gaur egun egindako jarraipen zientifikoak.

**NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIORAKO ETA TURISMO-ERABILERARAKO  
NATURA-ESKAINZA**

TU.1	Eragileen balorazioa honako hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Turismo-eskaintzaren kalitatea.</li> <li>- Turismo-eskaintzak UBEn garapen iraunkorrari egindako ekarpenaren maila.</li> <li>- UBeko turistei emandako ingurumen-kontzientziazioaren maila.</li> <li>- Turismoak UBEn eragindako ingurumen-inpaktu negatiboaren maila.</li> </ul>
TU.2	Turismo-sektoreko adierazle sozioekonomikoak. Oinarrizko datuak (2010).
TU.3	Kultura-ekipamenduen erabilera Urdaibain.
TU.4	Natura- eta kultura-ondarearen interpretaziorako eta erabilerarako turismo-eskaintzaren eragileak.

**DIAGNOSI SOZIOEKONOMIKOA.**

SE.1	Biztanleriaren bilakaera.
SE.2	Urdaibairen BEGd-a, jarduera-sektoreak kontuan hartuta.
SE.3	Biztanleria landuna, jarduera-sektoreak kontuan hartuta.
SE.4	16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasa, langabezia-tasa eta okupazio-koefizientea.
SE.5	Urdaibain eta beste lurralde-eremu batzuetan erregistratutako langabezia.
SE.6	Batez besteko errenta pertsonala, lurralde-eremuen arabera (euroak). 2011.



# 1 ESPARRU TEORIKOA

## 1.1 DEFINIZIOAK

### INFORMAZIOA

---

Informazioak ingurumenari buruzko ezagutza garrantzitsuak jartzen ditu pertsonen esku. Biztanleriari zerbait jakinaraztea edo zerbaiten berri ematea.

### DIBULGAZIOA

---

Dibulgazioaren xedea da interesgarria den zerbait argitaratzea, hedatzea eta jendartearen esku uztea. Informazioa baino goragoko komunikazio-maila bat da. Edukien aukera eta komunikazio-estrategia bat ditu oinarrian. Berariazkoagoa da informazioa baino.

### INTERPRETAZIOA

---

Objektu originalen bitartez (baliabideak) eta zuzeneko esperientzien nahiz irudidun baliabideen bidez esanahiak eta harremanak ezagutaraztera bideratutako hezkuntza-jarduera da interpretazioa.

Informazioa, dibulgazioa eta interpretazioa funtsezko komunikazio-prozesuak dira lurraldea ezagutzeko eta zaintzeko prozesuetan. Eskuarki eragile berberak garatzen ditu, baina edukiaren eta subjektuen arteko sakontasun-mailak bereizten ditu.

### GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA (GIH)

---

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari (GIH) esker, gizaki orok etorkizun iraunkorra eraikitzeko beharrezko ezagutzak, gaitasunak, jarrerak eta balioak barnera ditzake.

Haren bilakaeran, hiru fase bereizten dira GIH kontzeptuaren garapenean, helburu- eta metodo-aldaketak barnean hartuta:

- (1) Natura-ingurunearen babesa eta hari buruzko informazioa sustatzea, giza jarduerak alde batera utzita. Ingurunearen ezagutzari lotutako Ingurumen Hezkuntza.
- (2) Ingurumen-kontzientzia eta sentsibilizazioa sortzea: ingurumen-inpaktua gelditzeko interakzioak eta arazoak ezagutzera ematea, garapen-eredua zuzenean aldatu gabe. Oinarrizko Ingurumen Hezkuntza.
- (3) Giza garapenerako beste eredu batzuk bilatzea eta gure jokaerei buruz hausnartzea; halaber, ekosistemetan funtzionatzeko dugun moduan aldaketak eragitea, imajinatzea eta egitea. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza.

Hauk dira GIHren garapenerako hiru testuinguruak:

- Hezkuntza formala: arauzko ikastetxeetan eta heziketa-zentroetan garatutakoa, onartutako titulu eta prestakuntza ofizialak ematen dituena.
- Hezkuntza ez-formala: hezkuntza- eta prestakuntza-sistema nagusiekiko paraleloan egiten dena. Ikastetxeetan jasotakoaren osagarria izan daiteke, bai eta lantokietan jaso ere, edo

gizarte zibileko erakundeen eta taldeen jardueren bidez (hala nola gazte-erakundeak, sindikatuak eta alderdi politikoak).

- Hezkuntza informala: lanarekin, familiarekin eta aisialdiarekin zerikusia duten eguneroko bizitzako jardueretan lortutakoa, pertsonen ohiko jardueren osagai natural gisa, eta ez derrigorrean nahitakoa; ez du inolako egiturarik eta ziurtagiririk behar.

## GAIKUNTZA

---

Etengabeko ikaskuntza-irakaskuntza prozesu bat da gaikuntza; haren bitartez, pertsonen abileziak eta trebetasunak garatzen dira, eta horiei esker, hobeto eraman ahal izango dituzte aurrera ohiko lanak. Barnekoa edo kanpokoan izan daiteke, programa iraunkor baten arabera, onartua, eta ekarpenak egin diezazkioke erakundeari.

Gaikuntza ezinbestekoa da tokiko komunitateek eta beste eragile batzuek Biosfera Erreserbaren plangintzan, administrazioan eta jarraipen-sistemetan parte hartu ahal izateko.

## IKERKETA

---

Ikerketa ezagutza berriak lortzera bideratutako giza jarduerak da, bai eta ezagutza hori izaera zientifikoa duten arazoak edo kontuak konpontzeko aplikatzera ere.

Ingurumen-ikerketa aplikatuaren xedea lurraldearen kudeaketan ikerketa txertatzea da, erabakiak hartzean ezagutza erabiliz; hala, eragile sozial eta instituzional guztien artean egingo da lan, eta horren bitartez, eraginkortasuna bilatuko da eskura dauden giza baliabideen, baliabide fisikoen eta baliabide finantzarioen erabileran, erakunde arteko koordinazioan, lurralde-ikuspegian, zuzentasunean, etab.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

---

Erabakiak hartzean komunitatearen integrazioa lortuz, demokrazia parte-hartzailea bultzatzea xede duen ekintza-multzoa adierazten du *herritarren parte-hartzea* terminoak.

Herritarren parte-hartzeari esker, herritarrek adostutako eta oso ondo baloratutako garapena sustatzen da. Herritarren integrazioa errazten duen demokrazia parte-hartzaileko prozesu bat da, eta horren ondorioz, Administrazio eta kudeaketa garden baten egiazko paradigma.

Horretarako, ezinbestekoa da herritarrei tresna teknologikoak eskaintzea, baita sare sozialen bidezko sarbide zuzen bat ere.

## 1.2 BIOSFERA ERRESERBEN ETA UBE-REN GARAPENAREN KRONOLOGIA

URTEA	MUNDUKOA	ESTATUKOA	EUSKADI	URDAIBAI
1971	Gizakiari eta Biosferari buruzko UNESCO programa: " <i>Man and Biosphere</i> ".			
1976	Lehen Erreserben adierazpena			
1983	Biosfera Erreserben Sarerako lehen Ekintza Plana			
1984				UBEren izendapena, UNESCOren aldetik.
...1989				5/1989 legea, uztailaren 6koa, UBE babestu eta antolatzeari buruzkoa.
...1990			Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegi (IIHII) sorrera.	
...1992				313/1992 dekretua, UBE babestu eta antolatzeari buruzko legea garatzen duena.
1993				242/1993 dekretua, UBEren erabilera eta kudeaketa arautzeko egitamua onartzen duena.
1994	Aalborgeko karta (bultzada Tokiko Agenda 21ei).		16/1994 legea, EAEko natura babestekoa.	
1995	UNESCOren Biosfera Erreserbei buruzko Nazioarteko Biltzarra [Sevillako estrategia] [Estatutu Esparrua].			164/1995 dekretua, UBEko Lankidetzaren Kontseilua sortzeko dena.
...1997				15/1997 legea, urriaren 31koa, 5/1989 legea aldatzekoa. <b>UBEko interpretazio, ikerketa eta hezkuntzarako erabilera-egitamua. [1997-2007]</b> 197/1997 DEKRETUA, Lankidetzaren Kontseilua sortzen den dekretua aldatzen duena.
1998			3/1998 legea, Ingurumen Lege Orokorra.	258/1998 dekretua, UBEren jardura sozioekonomikoen egokitzapenerako eta garapenerako egitaraua onesteko dena.
...2002			Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia	

URTEA	MUNDUKOA	ESTATUKOA	EUSKADI	URDAIBAI
			[2002-2020] EAEko I. Ingurumen Esparru Programa (2002-2006).	
2003			Eskolako A21 programaren hasiera.	27/2003 dekretua, otsailaren 11koa, UBeren EKAE aldatzeko dena.
2004				Urdaibairen LIC izendapena (Natura2000).
2005	DESD. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Nazio Batuen Hamarkada. NBE. [ 2005-2014 ]		Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzarako Estrategia EAEn. IIHIIak INGURUGELA bihurtzea. Bizkaia 21 proiektua (Bizkaiko Foru Aldundia).	
2006	DESD-en nazioarteko aplikazio-plana. Unescoren Hezkuntza Sektorea.	Espainiako Biosfera Erreserben Lehen Biltzarra.		
2007		42/2007 legea, natura-ondareari buruzkoa.	IHEE: Iraunkortasunean oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa (Bizkaiko Foru Aldundia). [ 2007-2014 ] EAEko II. Ingurumen Esparru Programa (2007-2010).	
2008	PAM 2008. Madrilgo Ekintza Egitasmoa. [2008-2013]		Milurtekoko ekosistemen ebaluazioaren hasiera Bizkaian	
2009		Montsenyko Ekintza Egitasmoa. [2009-2013]	Biodibertsitate Estrategia. [2009-2014]	UBeren garapen iraunkorrerako estrategia. [2009-2015]
2011			II. Bizkaia 21 programa 2011-2016 (Bizkaiko Foru Aldundia). EkoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia.	
...2013	GIHri buruzko Munduko Ekintza Programaren Nazio Batuen proposamena - DEDSen jarraipena.			KBEen Kudeaketa egitasmoen onespina. (Natura2000)
2014			EAEko IV. Ingurumen Esparru Programa (2015- 2020).	

Iturria: geuk egina

### 1.3 AURREKO EGITASMOAREN EBALUAZIOA 1997-2007


1997an, hasiera eman zitzaion UBEko Interpretazio, Ikerketa eta Ingurumen Hezkuntzarako Erabilera Egitamuari; honako programa hauek hartzen ditu barnean:


- **Informazio-** eta **dibulgazio-**programa.
- Sektoreko **prestakuntza** teknikorako programa.
- Hezkuntza-alorreko **ingurumen-hezkuntzarako** programa.
- **Ikerketarako** eta lankidetzazientifikorako programa.

Egikaritze-epea agortuta duen arren, 1997ko egitasmo horren diagnostikoaren alderdi handi bat gaur egun aplikatzeko modukoa da, eta hortaz, indarrean dago. Egitasmo horretan aurreikusitako helburuak eta ekintzak ez dira bere osotasunean lortu edo bete. Izan ere, hein handi batean, Egitasmo horren indarraldian burututako jarduerak dira, eta 2007. urteaz geroztik, ez dira gehiago egin. Hala ere, horietako batzuek interesa dute eta indarrean daude, eta hurrengo grafikoetan ikus daitezkeen bezala, lehenetasunezkoztat har daitezke.

Hala, egindako lanarekin koherentzia gordetze aldera, aurreko egitasmoa inspirazio-iturri partzialtzat hartu da, PICE-IGHP egiteko.

Aurreko egitasmoaren ebaluazioa Biosfera Erreserbako Zerbitzuko langileen ezagutzetan oinarrituta egin da.





Iturria: UBEko Zerbitzuko teknikariak.

Eranskin digitalean, ebaluaziorako erabilitako dokumentua erantsi da, balorazio zehatzak barnean hartzen dituena [UBEko interpretazio, ikerketa eta hezkuntzarako erabilera-egitamuaren ebaluaziorako dokumentua (1997-2007)].

## 2 METODOLOGIA

Hemen, laburbilduta aurkezten da Urdaibaiko Biosfera Erreserban garapen iraunkorraren arloko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-plana egiteko erabilitako metodologia.

### Soziograma

- Planak lantzen dituen alderdietan inplikaturako eragileak identifikatzea.
- Eragileak identifikatzen dituen zerrenda bat egin da, bai eta haien arteko harremanak marrazten dituen eskema bat ere.

### Parte-hartzea

- PICE-IGHP idaztean, Urdaibain garapen iraunkorraren arloko interpretazioan, ikerketan, gaikuntzan eta hezkuntzan jarduten duten funtsezko eragileen bitartez bideratu da parte-hartzea; izan ere, eragile horiek beste eragile asko ordezkatzeko dituzte eta bide luzea eta harreman zuzena dituzte alor horietan. Horri esker, kalitate handiko informazioa lor daiteke.
- Partaidetza-saio laburrak egin dira. Hala, modu eraginkoragoan identifikatu daitezke lehentasunezko diagnosi-elementuak eta 10 urteko lan-esparru baterako ekintza-estrategiarako proposamen bat lor daiteke. Proposamen hori onartu aurretik, adostu egin behar da hartan inplikaturako eragileekin.
- Parte-hartzea funtsezko ardatza da babes logistikorako funtzioa garatzeko. PICE-IGHPren helburuak eta lehentasunezko ekintzak bideratuta daude eragileen komunikazioa eta parte-hartzea lortzeko beharrezko bideak zehaztera, nola Plana gauzatzean hala hausnarketa-maila handiagoa eskatzen duten lan-lerroen definiziorako eta zehaztapenerako ekintza parte-hartzaileak eta gogoetazkoak egitean.
- Honako hauen bitartez zehaztu da parte-hartzea:
  - Galdeketak.
  - Elkarrizketak (erantsitako eskeman elkarrizketak E letrarekin eta dagokion eragilearekin daude identifikatuta).
  - Eztabaidagune parte-hartzaileak.

### Azterketa dokumentala

- Diagnosirako informazio nabarmenena lortze aldera, proiektuarekin zerikusia duten dokumentu garrantzitsuenak irakurri eta aztertu dira.
- 13. eranskinean, erabilitako bibliografia dator zerrendatuta.

### Diagnosia

- Diagnosi parte-hartzailea. Galdeketetan, UBEn kudeaketaren hainbat alderdiren balorazio kualitatiboari buruzko datuak jaso dira, eta eskemen bidez daude adierazita diagnosian.
- Diagnosi kuantitatiboa. Grafikoen bidez daude adierazita lortutako datu objektiboak.
- Diagnosi kualitatiboa. Lortutako informazioan oinarritutako diagnosi-balorazioa, indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak bereizten dituena.
- Balorazioko diagnosia. Lehentasunezkoagoak diren diagnosi-elementuak ateratzea, diagnosia jorratutako gaiaren arabera laburbilduta.

### Esparru logikoa

- Lehentasunezko diagnosi-elementuek lortu beharreko helburuak zehazten dituzte. Diagnosi-elementu bakoitzak lotura du helburu espezifiko batekin.
- Helburu orokorre espezifikoak multzokatzen eta laburbiltzen dituzte.

- Helburu espezifiko bakoitzaren emaitzei esker, haren lorpenaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izango dira.
- Helburu espezifiko bakoitza hura garatzen duten ekintzen bitartez zehazten da. Ekintza bakoitza lotuta dago eragile sustatzaile eta inplikatuekin, gutxi gorabeherako aurrekontu batekin eta aurreikusitako egikaritze-egutegiarekin.

#### **Planaren inpaktu ekonomikoaren ebaluazioa**

- 15. eranskinean, planaren inpaktu ekonomikoa ebaluatzen duen dokumentua dago, errentaren eta enpleguaren sorrerari buruzko azterketa barnean hartzen duena.


#### **Eranskin digitalean, honako hauek daude eskuragarri:**

1. eranskina – Eragileen zerrenda
2. eranskina – Galdeketen eta erantzunen ereduak
3. eranskina – Diagnosiaren datuak lantzea
4. eranskina – Ekipamenduen fitxak
5. eranskina – Elkarrizketen gidoia eta aktak
6. eranskina – Eztabaidagune parte-hartzaileen aurkezpena eta aktak
7. eranskina – UBEko interpretazio, ikerketa eta hezkuntzarako erabilera-egitamuaren ebaluaziorako dokumentua (1997-2007)
8. eranskina – Irteera geologiko erakusgarriaren txostena
9. eranskina – Esparruko dokumentu garrantzitsuenen laburpena
10. eranskina – Diagnosi-elementuen zerrenda. Deskribapena eta iturria
11. eranskina – Elementu komunikatiboak (bideak, prentsa-oharrak eta artikuluak)
12. eranskina – Identifikatutako artikuluko zientifikoen eta ikerketa-proiektuen erreferentzia
13. eranskina – Bibliografia
14. eranskina – Soziograma (diseinu-tresnak)
15. eranskina – Errentaren eta enpleguaren sorrerari buruzko azterketa
16. eranskina – Planaren aurkezpena
17. eranskina – Laburpen-dokumentuak
18. eranskina – Kuantifikazioko excel dokumentua eta planaren egutegia

**Eskema honetan, PICE-IGHP lantzean zer metodologia erabili den dago adierazita.**



GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA-ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN



### 3 DIAGNOSIA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN

#### DIAGNOSIAREN EGITURA

Diagnosiaren atal bakoitza honako atal hauetan dago egituratuta (kasuren batean, atalen bat falta daiteke baldintza metodologikoak direla eta).

1. Balorazio partaidetua. Eragileen balorazio kualitatiboak baloratutako alderdiei buruz. Parentesien arteko datuen errotuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua.
2. Diagnosi-elementuak.

HB	Hobetu beharrekoa (HB)	Deskribapena, azalpena, justifikazioa.
IG	Indargunea (IG)	Deskribapena, azalpena, justifikazioa.
N	Neutroa (N)	Deskribapena, azalpena, justifikazioa.

3. Lehentasunezko diagnosi-elementuak. Ondorio gisa, lehentasunezkoagotzat jotzen diren diagnosi-elementuak aterako dira, eta helburuak lortzeko erabiliko.

Indargunetzat hartzen den lehentasunezko diagnosi-elementua

Hobetu beharrezkotzat hartzen den lehentasunezko diagnosi-elementua

### 3.1 ERAGILEAK


#### DIAGNOSIAREN HELBURUA

Ebaluatutakoa:

- Planaren ikerketa-alar bakoitzean funtsezkoak diren eragileak identifikatzea.
- Eragileen arteko harreman-motak, Planaren garapenari eragin diezaioketenak.
- Planaren ikerketa-alar bakoitzean inplikaturako eragileen arteko koordinazio-bideak.
- Lankidetzeta-sareak identifikatzea, eta eragileen artean lotura-puntuak eta sinergiak ezartzeko aukera.
- Gizarte-eragileen eta tokiko biztanleriaren parte-hartzerako kanalak.

#### 3.1.1 PLANAREN IKERKETA-ALORRETAKO FUNTSEZKO ERAGILEAK


UBEn, garapen iraunkorraren arloko interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren eta hezkuntzaren alorreko **funtsezko 170 eragile** baino gehiago identifikatu dira. Hemen ikus daiteke nola dauden banatuta funtsezko alorraren arabera.



Iturria: eragileen zerrendan oinarrituta egina.

Grafikoa ondo ulertzeko, aipatu behar da identifikaturako eragile gehienek Planak landutako alderdi bat baino gehiago jorratzen dutela.

Bestalde, turismoaren alorreko eragileak ere hartu dira barnean; izan ere, zenbait kasutan, harreman estua izan dezakete Urdaibaiko Biosfera Erreserbako natura- eta kultura-ondarearen interpretazioaren alorrekin. Horrez gain, eta aurreko irudian adierazita ez dauden arren, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) 540 eragile ikerlari inguru ere identifikatu dira.




Iturria: eragileen zerrendan oinarrituta egin.

IG	Eragile kopuru handia eta anitza Urdaibain	Hezkuntzaren, interpretazioaren, gaitzaren, ikerketaren eta turismoaren alorreko eragile ugari eta mota askotakoak daude Urdaibaiko Biosfera Erreserban, eta hori sekulako aukera da eragile desberdinen artean sinergiak sortzeko.
IG	Eragile gehienaren gertutasuna	Planaren funtsezko alorreko eragile gehienak Urdaibaiko Biosfera Erreserban kokatuta daude, eta horrek erraztu egiten ditu haien arteko harremanak, komunikazioak eta koordinazioak.


### 3.1.2 SOZIOGRAMA ETA ERAGILEEN ARTEKO HARREMANAK

Identifikatutako eragileen artean dauden harremanen egungo egoera zehaztasun handiagoz ezagutze eta interpretatze aldera, **soziograma** hau egin da. Bertan, eragileen rolei eta funtzioei buruzko informazioa eta argibideak ematen dira, bai eta harremanak, haien interakzioa eta posizionamendua identifikatzen ere, eragile proaktiboak, pasiboak, mugatzaileak eta ezinbestekoak identifikatuta.

**GARAPEN IRAUNKORRAREN ALORREKO INTERPRETAZIOAREN, IKERKETAREN, GAIKUNTZAREN ETA HEZKUNTZAREN SOZIOGRAMA FUNTZIONALA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN**



## UBE-REN PATRONATUAREN BARNE-SOZIOGRAMA



Detektatutako hobetu beharreko alderdi nagusia horien **koordinazio-falta** da, nola sektore berean hala sektore desberdinen artean. Taula honetan dator jasota.

HB	Eragileen arteko koordinazio-falta	la ez dago koordinaziorik planaren funtsezko alorretako eragileen artean, eta koordinazio-falta hori nabarmendu egiten da eragile pribatuen eta publikoen arteko harremanetan.
HB	Komunikazioa eta koordinazioa hobetzekoak dira UBEko eragileen eta Patronatuaren artean	Eragile gehienen eta UBEko zerbitzuaren arteko koordinazioa oso mugatua eta berezia da, eta kasu gehienetan, beharren arabera egiten da, etengabeko komunikazio-/koordinazio-harremanik gabe. Azken urteetan komunikazio hori eta haren intentsitatea pixkanaka murriztu egin dela uste da.
HB	Hainbat erakunderen mendeko eragileen arteko lankidetzaz-araioak	Eragile batzuk zenbait erakunderen mende daude, eta horrek zaildu eta moteldu egiten ditu lankidetzak eta koordinazioak.
IG	Harreman teknikoak eta pertsonalak garrantzitsuak dira koordinaziorako.	UBEn inplikaturako eragile askok azpimarratzen dute lankidetzarako mekanismo gutxi dauden arren harreman pertsonalei esker errazagoa izan ohi dela eragileen arteko lankidetzak.

### 3.1.3 ALOR BAKOITZEKO ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIO-BIDEAK

Eragileen arteko harremanak behar bezala ulertzeko, beste maila bat jaitsi behar da, eta sektore bereko eragileen arteko harreman-motak aztertu behar dira. Adibidez, hezkuntza-eragileen arteko harremanak, ikerketa-eragileen artekoak, etab.

IG	Hezkuntza formaleko ikastetxeen arteko lankidetzaz-sarea, Eskolako Agenda 21i esker	Koordinazio- eta lan-egitura iraunkor, aktibo eta jarraitu bat dago, UBEko ikastetxe guztiak Eskolako Agenda 21 garatzeko biltzen dituenak.
HB	Koordinazio gutxi hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean	Biak ala biak hezkuntzaren alorrekoak diren arren, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eragileen artean komunikaziorik eta koordinaziorik ez dagoela identifikatu da, eta horren ondorioz, gutxietsi egiten dute elkarren lana.
HB	Koordinazio gutxi interpretazioko eta turismoko sektoreetan	Ez dago mezu bakar eta adostu bat tokiko biztanleei eta bisitariei adierazi beharreko eta haiekin landu beharreko balioei buruz. Eragile bakoitzak bere erara heltzen dio bere jarduerari, eta eskura dituen baliabideekin.
IG	Nahiko koordinazio ona gaikuntza-eragileen artean	UBEko gaikuntza-eragile nagusiak etengabe koordinatzen eta komunikatzen dira, eskura dituzten baliabideak maximizatze aldera eta eskualdean gaikuntza-eskaintza global bat garatze aldera.
HB	Plangintza eta koordinazio falta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ikerketa-jardueran	Ikertzeko gaitasuna ona eta kalitatezkoa da UBEren inguruko ikerketa-lanak egiteko, baina ez dago ikerketa-jarduera horren koordinaziorik, ez eta plangintzarik ere.

### 3.1.4 LANKIDETZA-SAREAK ETA SINERGIAK

Identifikatutako eragileen harreman-sarean, dauden lankidetza-sareekin eta eragileen artean lotura-puntuak eta sinergiak egiteko aukerarekin lotutako elementu hauek ikusi dira, lehen aipatutako Eskolako Agenda 21eko lankidetza-sareaz gain.

IG	Eragileen arteko koordinazioa lortzeko interesa	Hezkuntza- (formala eta ez-formala) eta interpretazio-eragile askok interesa dute UBEn balioak eta ezagutza elkarrekin lantzeko, guztion helburuak bateratuta eta adostuta; hala, kasu guztietan mezu bera emango da aditzera.
HB	UBEn ez dago aholkularitzarik/koordinaziorik iraunkortasunaren alorrean hezkuntza formaleko sektorearen eta ez-formaleko sektorearen artean	Ez dago garapen iraunkorrerako hezkuntza-teknikaririk UBEn, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eragileen artean koordinazioa eta babesa egon dadin.
HB	Ikuspegi lehiakorra eragileen artean	Lankidetzarako nolabaiteko beldurra edo mesfidantza dago, eragileen arteko kompetenziaren beldurra dela eta. Eragile pribatuen artean, pertzepzio lehiakor hori are nabarmenagoa da zenbait eragile publikorekiko.
N	Patronatua eragileen arteko koordinazioa sustatzen duen organo gisa dago identifikatuta	Planaren ekintza-alorreko eragileen ustez, UBEn Patronatuak izan behar du lankidetza-/koordinazio-sareen buru, eta organo horrek sustatu behar ditu sare horiek.



### 3.1.5 GIZARTE-ERAGILEEN ETA TOKIKO BIZTANLERIAREN PARTE-HARTZERAKO KANALAK

IG	Gizarte-eragileen parte-hartzerako organo formal bat dago	1989ko Urdaibaiko legearen eta 164/1995 dekretuaren arabera, Lankidetzaren Kontseilua sortu zen. Hala, erraztu egiten da inguruko jabeen eta auzokoen interesen defentsari eta naturaren azterketa zein defentsari lotutako entitateen parte-hartzea eta lankidetzaren, bai eta jardueraren UBEn garatzen duten gizarte-, ekonomia- eta kultura-sektoreetan adierazgarri direnei ere.
HB	Jarduera gutxi Patronatuaren Lankidetzaren Kontseiluaren aldetik	Azken urteetan gutxituz joan dira Lankidetzaren Kontseiluaren jardueraren, interesa eta proaktibitatea, eta hala, ahuldu egin da gizarte-eragileen parte-hartzerako kanal formala.
HB	Parte-hartze soziala sustatzeko informazio-falta	UBEn buruzko informazio-falta hauteman da: haren balioak, onurak, kudeaketako alderdi garrantzitsuenak, garatutako jarduketak, etab. Horren ondorioz, gizarte-eragileei eta tokiko biztanleei kostatu egiten zaie hurbiltzea eta parte hartzea
IG	Jendeak bat egiten du UBekin, baina sektore batzuek pertzepzio negatiboa dute Biosfera Erreserbaren irudiarekiko	2005eko "Urdaibaiko Biosfera Erreserban bizi diren biztanleen iritziaren egoera" ikerketan, 3.1.2 puntuan (Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Izendapenari buruzko iritzia), % 77k positibotzat hartzen du izendapena. Hala ere, tokiko biztanleen parte batek barneratuta du Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren konnotazio negatibo bat, eta eremu murriztailetzat hartzen dute. Horrez gain, Patronatua bera murrizketak sortzen dituen organotzat hartzen dute, eta beraz, onurarik ez dakarren organotzat.

### 3.1.6 LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK

LDE 1.	Koordinazio-falta edozein sektoretan inplikaturako eragileen artean
LDE 2.	Koordinazio gutxi hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean
LDE 3.	Koordinazio gutxi interpretazioko eta turismoko sektoreetan
LDE 4.	Nahiko koordinazio ona tokiko gaikuntza-eragileen artean (Behargintza Gernika-Lumo, Behargintza Bermeo, Mundaka, Sukarrieta eta Lanbide Gernika-Lumo)
LDE 5.	Plangintza- eta koordinazio-falta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ikerketa-jardueran
LDE 6.	Ikuspegi lehiakorra eragile gehien artean
LDE 7.	Hezkuntza formaleko ikastetxeen lankidetzaren sarea, Eskolako Agenda 21i esker
LDE 8.	Lankidetzaren Kontseilu bat egoteak eragileen arteko komunikazioa eta lankidetzaren erraztu behar ditu
LDE 9.	Ondo antolatutako koordinazioa eta komunikazioa behar dira eragileen eta Patronatuaren artean
LDE 10.	UBEri eta Patronatuari buruz zabalduko informazioa oso urria da, eta hori ez da lagungarria parte-hartze soziala sustatzeko.


## 3.2 INFORMAZIO-, KOMUNIKAZIO-, DIBULGAZIO- ETA INTERPRETAZIO-SISTEMAK

### DIAGNOSIAREN HELBURUA

Ebaluatutakoa:

- Informazio-, komunikazio- eta dibulgazio-sistemak: informaziorako eta dibulgaziorako kanalak, baliabideak eta ekipamenduak.
  - Biosfera Erreserbaren irudi korporatiboa eta web orria.
  - Komunikabideetan eta sare sozialetan duen presentzia.
  - Informazioaren eta dibulgazioaren alorreko argitalpenak.
  - Gizarte-eragileen eta tokiko biztanleriaren parte-hartzeko kanalak.
  - Seinaleztapena.
  - Informaziorako ekipamenduak eta zerbitzuak.
- Natura- eta kultura-ondarearen interpretazio-sistema:
  - Instalazioen egokitasuna.
  - Natura- eta kultura-ondareari buruz landutako gaiak eta jarduerak.
  - Bideen egungo egoera.
- Inplikaturako eragileen arteko lan bateratua eta koordinazio-maila.

### 3.2.1 BALORAZIO PARTAIDETUA



OHARRA: Parentesien arteko datuen errotuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua adierazi da. Partaidetzako topaketan egindako balorazioak hartu dira barnean.

### 3.2.2 INFORMAZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA

#### 3.2.2.1 IRUDI KORPORATIBOA

HB	Irudi korporatiboak ez ditu ordezkatzen UBE osatzen duten eragile guztiak	Egungo irudi korporatiboa Eusko Jaurlaritzarenari lotuta agertzen da beti. Nahiz eta UBEk identitate propioa izan, aurrez deskribatutako kulunkaren ondorioz hark ez du lortu eragile guztiak ordezkatzea. Jarduten duten eragileen atomizazioak natura-ingurune babestuaren irudien dispertsioa dakar berarekin, eta horrek ez dio mesede egiten UBEn batasun-sentimenduari. Eragileek herritarren komunikazioa bateratzeko eskaera zabala egiten dute.
IG	UBEko biztanleek Urdaibai marka barneratzea	Urdaibai izenak Biosfera Erreserbaren eremuan bizi diren pertsonak parekatzen ditu, Biosfera Erreserbaren irudiarekin bat egin ala ez, hark mesede egiten diela uste izan ala ez.
HB	Biztanle-sektore batzuek pertzepzio negatiboa dute Biosfera Erreserbaren irudiarekiko	Tokiko biztanleek ez dituzte behar bezala ezagutzen UBEn helburuak eta inplikazioak. Patronatuak ez du presentzia aktiborik Biosfera Erreserbaren egunerokoan.

#### 3.2.2.2 Informazioa herritarrei helarazteko bideak

HB	Nahasmena dago Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Internet bidezko hedabide ofizialen inguruan	Interneteko Urdaibai domeinua ( <a href="http://www.urdaibai.org">www.urdaibai.org</a> , <a href="http://www.urdaibai.com">www.urdaibai.com</a> ) Biosfera Erreserbaz kanpoko entitateek kudeatzen dute, baina haren kudeaketari buruzko informazioa dauka. Bide ofiziala Eusko Jaurlaritzaren webgunean dago: <a href="http://www.euskadi.net/urdaibai">www.euskadi.net/urdaibai</a> . Web ofizialaren posizionamendua ez da ona, eta egoera horrek oztopatu egiten ditu UBeri buruzko informazioaren hedapena eta erabilerraztasuna.
IG	Eusko Jaurlaritzaren mendeko prentsa-kabinete indartsua	Eusko Jaurlaritzaren prentsa-kabinetearen erabilerak gaitasun eta indar handia ematen du informatzeko eta hedatzeko, baina betiere Eusko Jaurlaritzaren irudiari lotuta.
HB	Informazio- eta komunikazio-kanal zuzen bat falta da Biosfera Erreserbako organo kudeatzailearen eta bertako biztanleen artean	Gaur egun, ez dago informazio-kanal zuzenik. Badira zenbait elementu iraganean erabili zirenak eta dagoeneko erabiltzen ez direnak.



#### ARGITALPENAK

IG	UBEn Patronatuak hasieratik egin ditu zenbait argitalpen lehenetsitako beharrak zein diren kontuan hartuta	1997ko Erabilera Egitamuaaren barruan, zenbait argitalpen egin ziren markatutako irizpideak kontuan hartuta. Egitamuaaren ondorengo urteetan, argitalpenak egiten jarraitu zen, baina intentsitate txikiagoarekin; zenbait sail alde batera utzi ziren, eta behar- eta lehenetsun-irizpideak hartu ziren oinarrian.
----	--	---

HB	Argitalpenek ez diete erantzuten lanketa- eta/edo banaketa-plangintza bati	Ez da epe luzeko plangintzarik egin, ez eta beharrezko jarraipenik ere, detektatutako beharrek bat datorren argitalpen-politika koherente eta oso bat gauzatze aldera.
IG	Jatorri turistikoak duten argitalpenen eskuragarritasuna	Urdaibaiko sektore turistikoak –bereziki Urremendi Landa Garapen Elkarateak– UBEn informazio eta dibulgazio turistikora bideratutako dibulgazio-materialak egiten ditu.
HB	Ikuspegi integrala duen kalitatezko dibulgazio-argitalpen gutxi dago UBeko natura- eta kultura-ondareari buruz	Dibulgazio-argitalpenak egon badauden arren, ez da sakabanatutako informazioa integratu UBEn balioak ikuspegi globalarekin hedatzeko.
HB	Beste sail batzuek egindako hedapen-materialekiko koordinazio-falta	Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek eta beste administrazio batzuek beren hedapen-argitalpenak egiten dituzten UBeri buruz, baina ez daude UBEn zerbitzuarekin koordinatuta.

### 3.2.2.3 SEINALEZTAPEN-SISTEMA

HB	Plangintza-falta seinaleztapenean, eta horren ondorioz, heterogeneotasun handia eta mantentze-lan gutxi daude	Ez dago irizpide fisikorik, estetikorik, edukiei buruzko irizpiderik edo mantentze-ari buruzko irizpiderik markatzen duen seinaleztapenaren inguruko plangintza-tresnarik. Horrenbestez, era askotako seinaleak daude, lana zer erakunde egin duen kontuan hartuta. UBEn zerbitzua seinaleen eta hiri-altzarien katalogo bat ari da egiten.
IG	Interpretazio-etaulak daude	UBEn zerbitzuak gauzatutako proiektuen harira, eremuaren natura-balioei buruzko hainbat interpretazio-elementu jarri dira bertan.




Iturria: Baratzte Baserri Eskola, Gernikako Bakearen Museoa, Gorozika, Madariaga dorretxea, Lurraska, Urdaibai Bird Center eta Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroaren (SEEZ) galdeketak.

HB	Ekipamendu pribatuak ez daude seinaleztatuta sarbide nagusietan	Ekipamendu pribatuen seinaleztapena oso urria da komunikazio-bide nagusietan.
----	---	---

### 3.2.2.4 INFORMAZIO-RAKO EKIPAMENDUAK

INFORMAZIO-RAKO EKIPAMENDUAK (IN.4)	TIPOLOGIA	KOKAPENA
Bermeoko Turismo Bulegoa	Publikoa	Bermeo
Gaztelugatxeko Donieneko informazio-puntua (UBEtik kanpo)	Publikoa	Bermeo
Mundakako Turismo Bulegoa	Publikoa	Mundaka
Gernikako Turismo Bulegoa	Publikoa	Gernika
Busturialdea-Urdaibai BTT zentroko harrera-puntua	Publikoa	Mendata
Euskadiko Biodibertsitate Zentroa - Madariaga dorretxea	Publikoa	Busturia
Urdaibai Bird Center	Pribatua	Gautegiz Arteaga

Iturria: geuk egina, eragileek emandako informazioarekin.



Iturria: Turismo Bulegoek eta Madariaga dorretxeak emandako datuak. Ez dago informazio-puntu gisa funtzionatzen duten beste ekipamenduen daturik.

HB	UBEri buruzko informazioaren jarioa ez da arina dauden informazio-ekipamenduen artean	Turismo-informazioko bulegoek dagokien udalerrietako informazioa ematen dute batez ere, eta Biosfera Erreserbari buruz ematen duten informazio orokorra askoz txikiagoa.
IG	Urremendi Landa Garapeneko Agentzia arduratzen da UBEko turismo-informazioko puntuen koordinazioaz	Urremendik informazio-materialak sortzen ditu, eta agentziak berak kudeatzen dituen puntuetara, udaletako informazio-puntuetara eta landetxeen sarera banatzen ditu.
IG	Landetxe-sareak turismo-informazioko funtzio garrantzitsua egiten du	Eremu babestuan bisitariei edo bertakoei informazioa eskaintzen dieten ekipamendu pribatu ugari daude.


HB	UBEren informazio-puntuak falta dira; bereziki, Gernikan	Aurreko planeko ekintzetako bat Udetxea jauregia informazio-puntu gisa sustatzea da. Garai batean, hala egin zen, baina gero, alde batera utzi zen. Ekintza hori behar bat izan daiteke, udaleko turismo-informazioko puntuaren inplikazioaren arabera.
----	--	---

### 3.2.3 NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIOA

#### 3.2.3.1 INTERPRETAZIORAKO EKIPAMENDUAK

INTERPRETAZIORAKO EKIPAMENDUAK (IN.6)	
<b>Euskadiko Biodibertsitate Zentroa - Madariaga dorretxea</b>	<b>Arrantzaleen Museoa</b>
<b>Urdaibai Bird Center</b>	<b>Euskal Herria Museoa</b>
<b>Lurraska Ingurugiro Zentroa</b>	<b>Beti Aita Guria baleontzia</b>
<b>Baratze Baserri Eskola</b>	<b>San Kristobalgo hegaztien behatokia (Busturia)</b>
<b>Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroa - SEEZ</b>	<b>Santimamiñeko kobak</b>
<b>Gorozikako aterpetxea</b>	<b>Txatxarramendi parke botanikoa + Txatxarramendiko Itsas Arrainen Haztegiko Itsas Ikasgela</b>
Basondo - Fauna basatiaren babeslekua	<b>Matxitxakoko hegaztien eta zetazeoen behatokia (proiektua)</b>
Busturialdea-Urdaibai BTT zentroko harrera-puntua	
INTERPRETAZIO-ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAGILEAK (IN.6)	
Ur Urdaibai - Urdaibaiko turismo aktiboko eta abentura-kiroletako zentroa	Zornotza M.T.
<b>Urdaibai Tour</b>	Zornotzako Brinean
<b>Urdaibai On</b>	<b>Urdaibai Txatxi</b>
Laida Kanoak	<b>Zain Dezagun Urdaibai</b>
Urki Abentura	Urdaibaiko Galtzagorriak (Busturialdeko Ekologia Elkarte Federakuntza)
Urdaibai Kiroleroak	Lurgozo kontsumo ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarte
Hegaluze	<b>Lurgaia fundazioa</b>
Olatu	ADES Espeleologia Taldea
Gernika Sub	AGIRI Arkeologia Taldea
Txof Buceo	Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkarte
Sollube 707 Bermeoko M.T.	Ehunzango Jolasak


Letra **lodiz** nabarmenenak, interpretazioari lehentasuna ematen diotenak  
Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan oinarrituta.



Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan oinarrituta.


IG	Interpretazioko zerbitzu eta ekipamendu zabala	Interpretazio-proposamen asko eta kalitate askotakoak (interpretazio-garapen handiko zerbitzuak eta interpretazioa unean unekoa, noizbehinkakoa eta garrantzi gutxikoa duten zerbitzuak).
IG	Eskaintza pribatu osagarrien nagusitasuna	Eragile desberdinen interpretazio-eskaintza nahiko ondo osatzen da zenbait kompetentzia berezirekin. Baina kompetentzia-sentipena hedatuta dago sektorean.

#### EKIPAMENDUEN INSTALAZIOAK



Iturria: Baratze Baserri Eskola, Gernikako Bakearen Museoa, Gorozika, Madariaga dorretxea, Lurraska, Urdaibai Bird Center eta Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroaren (SEEZ) galdeketak.






Iturria: Baratze Baserri Eskola, Gernikako Bakearen Museoa, Gorozika, Madariaga dorretxea, Lurraska, Urdaibai Bird Center eta Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroaren (SEEZ) galdeketak.


IG	Jardunbide egokiak garatzen dira, eta inbertsio gutxi egiten dira azpiegitura iraunkorrak hobetzeko	Gehienek ondo kudeatzen dituzte sortutako hondakinak. Eta energia eta ura aurrezteko neurria ere sustatzen dituzte. Ingurumen-kudeaketaren kontrol gutxi, aisialdiaren eta kirolaren arloko enpresa pribatuetan.
----	---	--

### 3.2.3.2 INTERPRETAZIO-ESKAINNTZA




Iturria: Eragile-zerrenda, galdeketak eta web orrietako informazioa.

Argibidea: Ekipamenduek beren zerbitzuetan nabarmentzen dituzten gaien arabera sailkatu dira. Biodibertsitateari dagokionez, hura modu generikoan jorratzen dutenak hartu dira barnean, eta fauna bereizi da.



Iturria: Madariaga dorretxea, Lurraska, Baratze Baserri Eskola, Urdaibai Kiroleroak eta Urdaibai Bird Center-en galdeketak.



Iturria: Madariaga dorretxea, Baratze Baserri Eskola, Urdaibai Kiroleroak eta Urdaibai Bird Center-en galdeketak.

IG	UBEn, ondarearen interpretazioa naturari buruzko gaietan ardaztuta dago hein handi batean	UBEk hezkuntzaren, kirolaren eta aisialdiaren alorreko proposamen-mota ugari aurkezten ditu, eta haien bitartez, UBEn interpretazio-prozesuak garatzen dira. Natura da gehien lantzen den gaia, eta horren ondoren, historia- eta kultura-ondarea.
IG	Oro har, ekipamenduak hartzaile-mota askori daude zuzenduta	Baserri-eskolek bereziki haurrengan eta gazteengan jartzen dute arreta, nola eskolen bitartez hala jarduera ez-formalen bitartez. Baina badira jarduera helduekin eta familiekin zabaltzen duten beste ekipamendu batzuk ere (Urdaibai Bird Center eta Madariaga dorretxea).
HB	Interpretazio-jardueretara bertaratutako gehienak EAEkoak dira	Erabiltzaile gehienak EAEkoak dira. EAEz kanpoko beste erabiltzaile batzuk ere badaude, eta joera handitu edo sor dezakete.
HB	Planteamendu bateratuak eta anitzagoak behar dira GIHri buruz	Sektore guztietan, GIHren alorreko planteamendu berriak behar dira, egungoak ez bezalakoak. Irizpide praktikoak bateratzeko behar esplizitua dago interpretazio-jardueretan (kontzeptua, eginkizuna, partaidetza-metodoak, herritarren konpromisoa), bai eta eragileen arteko koordinazio- eta lankidetzabeharra ere.
N	Ekipamenduak eta zerbitzuak asko erabiltzen dira	Erabilitako zerbitzuen bolumenaren bilakaera desberdina da. Bi joera nabari dira: alde batetik, sortu diren ekipamendu berrietan erabiltzaile kopurua asko ugartu da azken 4 urteetan (hainbat arrazoi direla medio, hala nola berritasuna, interesa, dibulgazioa eta proposamenen berrikuntza). UBEn historikoak eta tradiziozkoak diren ekipamenduek, aldiz, ez dute erabiltzaile kopurua areagotu (proposamenen ezaugarriak eta gaitasun-mugak direla eta). Azken horiek mesfidantzaz hartzen dituzte lehenengoak, eta lehiakidetzat hartzen dituzte.

### 3.2.3.3 BIDEAK

HB	Ibilbideak ez daude behar bezala seinaleztatuta	Ibilbideak –lurraldea ezagutzeko, interpretatzeko eta baloratzeko lehen mailako baliabideak– ez daude behar bezala seinaleztatuta.
IG	Ingurunea interpretatzeko balio duten bideen hainbat gidaliburu daude	Natura- eta kultura-ondarearen parte bat interpretatzeko beharrezko baliabideak daude, bi gidaliburu baitaude argitaratuta ( <i>Urdaibai. Ibilbide-gida. Bidaia bat Biosfera Erreserbaren naturan eta kulturaren zehar; Urdaibai, Geologia interesguneen gidaliburua</i> ). Gidaliburu horiek asko saldu dira.
HB	Koordinazio-falta dago administrazioen artean, dauden bideen plangintzari, gauzatzeari eta mantentze-lanei dagokienez	Gidaliburuetan identifikatutako bideak ez datoz bat Ibilbide txikietako (PR) bide ofizialekin, eta horiek dira udalek mantentzen dituztenak.

IG	Bideen sistema integrala idazte-prozesuan dago	Laster, UBEko bideen bitartez natura- eta ondare-baliabideen garrantzia azpimarratuko duen bideen esparru-dokumentu bat egongo da eskura, gidaliburua berritze aldera. Esparru-dokumentuak PR egokienak identifikatuko ditu, eta bat egingo du Urremendik eta Udalek kudeatutakoekin.
----	--	---

### 3.2.4 LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK

#### INFORMAZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA

LDE 11.	Informazio- eta komunikazio-kanal zuzen bat falta da Biosfera Erreserbako organo kudeatzailearen eta bertako biztanleen artean.
LDE 12.	Urdaibai marka barneratzea
LDE 13.	Jendeak bat egiten du UBErekin, baina sektore batzuek pertzepzio negatiboa dute Biosfera Erreserbaren irudiarekiko.
LDE 14.	UBEko argitalpenek lehenetsitako beharrei erantzuten diete, baina plangintza falta da haiek egitean.
LDE 15.	Plangintza-falta dago seinaleztapenean, eta horren ondorioz, oso heterogeneoak dira.
LDE 16.	Biosfera Erreserbari buruzko informazioaren jariora ez da arina dauden informazio-ekipamenduen artean.
LDE 17.	Landetxeen eta nekazaritza-turismoko etxeen sareak turismo-informazioko funtzio garrantzitsua egiten du.
LDE 18.	UBEren informazio-puntuak falta dira; bereziki, Gernika-Lumon.

#### INTERPRETAZIOA

LDE 19.	Interpretaziorako natura- eta kultura-baliabideak oso ugariak eta mota askotakoak dira.
LDE 20.	Eskaintza eta jarduera ugari daude natura-balioen interpretazioaren alorrean.
LDE 21.	Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko interpretazio-ekipamendu nagusi eta ahaltu bat falta da.
LDE 22.	Ez dago Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren interpretazio-estrategia integraturik.
LDE 23.	Bideen sistema integrala idazte-prozesuan dago.
LDE 24.	Planteamendu bateratuak eta anitzagoak behar dira GIHri buruz.

### 3.3 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA: HEZKUNTZA- TESTUINGURU FORMALA ETA EZ-FORMALA

Atal honetan, izaera autonomoa duten garapen iraunkorrerako hezkuntzarako ekipamenduetan (hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formalerako eskaintza) eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba osatzen duten udalerrietako ikastetxeetan egindako garapen iraunkorrerako hezkuntzako (GIH) egungo eskaintzaren analisia eta ebaluazioa jorratuko dira.


Diagnosian erakutsiko den bezala, garapen iraunkorrerako hezkuntzako programak eskaintzen dituzten ekipamendu autonomoak Urdaibaiko natura- eta kultura-ondarea interpretatzeko ekipamenduak ere badira era berean, eta diagnosi honen aurreko blokean egin da haien karakterizazioa eta ebaluazioa. Bigarren atal honetan, eskaintako programen eta hezkuntza-jardueren karakterizazioa eta ebaluazioa jorratuko dira.

#### DIAGNOSIAREN HELBURUA


Ebaluatutakoa:

- Garapen iraunkorrerako hezkuntzako eskaintza, honako hauekin alderatuta:
  - Garapen iraunkorrerako hezkuntza-programak eskaintzen dituzten hezkuntza formaleko ikastetxeak eta ekipamendu autonomoak (hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formalerako eskaintza).
  - Hezkuntza-programa esanguratsuenen ebaluazioa:
    - Programen irismena eta egitura.
    - Nori zuzenduta dauden.
    - Gaien edo jardueren alorrean egon daitezkeen bikoiztasunak edo hutsuneak.
    - Eskaintza hobetzeko landu daitezkeen gaiak eta jarduerak
    - Programen egokitzapena, haien diseinuan eta gauzatzean oinarrituta.
    - Erabilitako baliabideak.
    - Ebaluazio-sistemak.
  - Eskaintzaren espezializazio-maila. Urdaibaiko Biosfera Erreserbari emandako balioak eta egungo eskaintzak betetzen dituen gizarte- eta ingurumen-beharrak.
  - Zer-nolako lotura duten hezkuntza-jarduerak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren testuinguruarekiko eta helburuekiko.
  - Inplikaturako eragileen arteko lan bateratua eta koordinazio-maila.
- Eskolako Agenda 21en potentzialtasunak eta erronkak, Urdaibaiko Biosfera Erreserban garapen iraunkorrerako hezkuntzarako tresna den aldetik.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntzan jarduten duten eragileen artean dauden koordinazio-mekanismoak.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntzari buruzko sektoreko plan eta programa estrategikoen aplikazio-maila (IHEE, Eskolako Agenda 21, etab.)


### 3.3.1 BALORAZIO PARTAIDETUA



OHARRA: Parentesien arteko datuen erroztuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua adierazi da. Partaidetzako topaketan egindako balorazioak hartu dira barnean.



OHARRA: Parentesien arteko datuen erroztuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua adierazi da. Partaidetzako topaketan egindako balorazioak hartu dira barnean.



OHARRA: Parentesien arteko datuen errotuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua adierazi da. Partaidetzako topaketan egindako balorazioak hartu dira barnean.

### 3.3.2 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZARAKO ESKAINTZA

#### 3.3.2.1 IKASTETXEAK ETA EKIPAMENDUAK

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAKO IKASTETXEAK (GH.4)		
IKASTETXE FORMALEN ZERRENDA	JARDUERA	UDALERRIA
Allende Salazar Haurreskola	Haurreskola	Gernika-Lumo
Haurreskola-Barrutia	Haurreskola	Gernika-Lumo
Bermeoko Haurreskola	Haurreskola	Bermeo
Muxikako Haurreskola	Haurreskola	Muxika
EIC Mundakako Haurreskola PHE	Haurreskola	Mundaka
Busturiko Haurreskola	Haurreskola	Busturia
Gautegiz Arteagako Haurreskola	Haurreskola	Gautegiz Arteaga
Arrietako Haurreskola	Haurreskola	Arrieta
Ibarrangeluko Haurreskola	Haurreskola	Ibarrangelu
Allende Salazar Eskola Publikoa	Heziketa formaleko zentroa	Gernika-Lumo
Barrutia Eskualde Ikastetxe Publikoa	Heziketa formaleko zentroa	Arratzu
Gernika Institutua (BHI-DBH)	Heziketa formaleko zentroa	Gernika-Lumo
Barrutia Institutua (BHI-DBH)	Heziketa formaleko zentroa	Arratzu
Merzede Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Gernika-Lumo
Seber Altube Ikastola	Heziketa formaleko zentroa	Gernika-Lumo

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAKO IKASTETXEAK (GH.4)		
IKASTETXE FORMALEN ZERRENDA	JARDUERA	UDALERRIA
San Fidel Ikastola	Heziketa formaleko zentroa	Gernika-Lumo
CEPA Gernika-Lumo HHI	Heziketa formaleko zentroa	Gernika-Lumo
Bermeoko Institutua	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Bermeo HHI	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Luis de Eleizalde Ikastola	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Lanbide Hastapena eta Sustapena Udal Ikastegia	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
CEP Bermeo. San Frantzisko LHI	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Bermeoko MGEren Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketarako Ikastegia	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Sagrado Corazon Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala	Heziketa formaleko zentroa	Bermeo
Muxikako Eskola Publikoa	Heziketa formaleko zentroa	Muxika
CEP Mundaka LHI	Heziketa formaleko zentroa	Mundaka
Jose Maria Uzelai Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Busturia
Montorre Herri Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Gautegiz Arteaga
Munitibarko Herri Eskola	Heziketa formaleko zentroa	Munitibar
Larrea Herri Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza
Amorebieta HHI	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza
El Carmelo Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza
Karmengo Ama Ikastetxea	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza
Andra Mari Ikastola	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza
Lauaxeta Ikastola	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza
IES Urritxe BHI	Heziketa formaleko zentroa	Zornotza

Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan oinarrituta.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAK ESKAINTZEN DITUZTEN EKIPAMENDU AUTONOMOAK (HEZKUNTZA EZ-FORMALA ETA HEZKUNTZA FORMALERAKO ESKAINTZA) (GH.5)			
IZENA	IZAERA JURIDIKOA	JARDUERA	UDALERRIA
Euskadiko Biodibertsitate Zentroa - Madariaga dorretxea	Publikoa	Informaziorako, erakusketarako eta partaidetza publikorako zentroa	Busturia
Lurraska Ingurumen Zentroa	Pribatua	Baserri Eskola	Ajangiz
Baratze Baserri Eskola	Pribatua	Baserri Eskola	Gautegiz Arteaga
Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroa - SEEZ	Pribatua/Publikoa	Baserri Eskola	Sukarrieta
Gorozikako aterpetxea	Pribatua	Baserri Eskola	Muxika

Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan oinarrituta.



Nabarmendu behar da oso gai espezializatuak jorratzen dituzten hainbat ekipamendu daudela UBEn inguruan. Zentro horiek hezkuntza-arreta eskaintzen diete ikastetxeei, taldeei zein publiko orokorrari. Hortaz, lehen aipatutako ekipamendu autonomo batzuek zentro espezializatu horiek ikusteko aukera hartzen dute beren hezkuntza-programen barnean.

GIZARTE- ETA INGURUMEN-ARLOKO HEZKUNTZA-JARDUERA ESPEZIALIZATUAK ESKAINTZEN DITUZTEN EKIPAMENDUAK (HEZKUNTZA EZ-FORMALA ETA HEZKUNTZA FORMALERAKO ESKAINTZA) (GH.6)		
IZENA	JARDUERA	KOKAPENA
Urdaibai Bird Center	Ornitologia: Hegaztiei, haien migrazioei eta haien bizileku diren habitatei buruzko ikerketa. Behaketa eta eraztunketa.	Gautegiz Arteaga
Santimamiñeko kobak	Egitura geologikoa eta historiaurreko aztarnategia. Geologia eta arkeologia: Bisita gidatuak eta autogidatuak, multimedia simulagailuak erabilia.	Kortezubi
Basondo – Urdaibaiko fauna babeslekua	Fauna: Mehatxatutako fauna basatiaren parkea eta babeslekua. Animaliei behatzeko bisita gidatuak.	Kortezubi

Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan eta eragileek nahiz web orriek emandako informazioan oinarrituta.


Zentro espezializatu horiek oso gai zehatz baten alorreko ezagutza aurkezten diote publiko orokorrari. Hori bai, bisitarien adinari eta interesei egokituta.

### 3.3.2.2 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAK


Garapen iraunkorrerako hezkuntza-programak eskaintzen dituzten bost ekipamendu autonomoetan (Madariaga dorretxea, Lurraska, Baratze, Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroa – SEEZ eta Gorozika) garatutako programak aztertu ditugu “garapen iraunkorrerako hezkuntza” terminoaren ikuspegian oinarrituta, eta xedeei, metodologiei eta gizarte-konpromisoari dagokienez, aurrerapena da hori, laurogeiko hamarkadan “ingurumen-hezkuntza” izenez hasitakoarekin alderatuta. Hortaz, aditzera ematen da garapen iraunkorrerako hezkuntzaren egungo proposamenek ingurumen-hezkuntzaren jardunak barnean hartzen eta gainditzten dituztela.

#### GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDU AUTONOMOAK

Analisi konparatiborako honako metodo hau erabili da: zentro bakoitzean, haren partaidetza konparatua orekatu da, bakoitzari intzidentziaren % 20 emanez (bost zentro dira). % 20 hori gaika banatuko da zentro bakoitzaren proposamen bereziaren arabera (ez da egindako jarduera, proposatutako jarduera baizik). Honako hau da azken emaitza, programetan proposatutako gaien arabera multzokatuta:



Iturria: Madariaga dorretxeko, Lurraskako, Baratzeko, Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroko - SEEZ eta Gorozikako hezkuntza-programak.



Iturria: Madariaga dorretxeko, Lurraskako, Baratzeko, Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroko - SEEZ eta Gorozikako hezkuntza-programak.

IG	Hartzaileei gai ugari eskaintzen zaizkie	Paisaia-dibertsitatearen eta lurraldearen konplexutasunaren ondorioz, gizartearen eta ingurumenaren alorreko gaiak jorratzen dituzten programa ugari garatu daitezke.
HB	GIHren alorreko gai berriak eskaintzeko beharra UBEn	Egindako programetan, nagusi dira ingurumen-hezkuntzaren alorreko gaiak (landa-ingurunea eta ingurune tradizionala, ekosistemak eta ibilbideak). Esplizitu egin da Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorreko berezko gai berriak egokitzeko eta garatzeko interesa (nola zentroetatik bertatik berrikuntzak egiteko hala UBek aurrez landutako programa estrategikoetan proposatutako egungo, beharrezko eta garrantziko problematikei erantzuteko).
IG	Adin-espektrora zabala hartzen da Urdaibain	Ekipamendu autonomoetan, 3 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta gazteei zuzendutako hezkuntza-proiektuak daude. Familiei zabalik dago (horren ondorioz, adin gazteagoak ere jasotzen ditu modu informala goan). Beste biztanleria-sektore batzuk hartzeko beharra eta interesa egin dute esplizitu (enpresak, teknikariak, helduen talde antolatutakoak). Unibertsitateko ikasleei zuzendutako arreta-programarik ez dagoela ikusi da.
HB	Hutsune metodologikoak daude garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorreko hezkuntza-programen programazioan eta praktikan	Ekipamenduaren arabera, GIHrako metodologia-maila ez da berdina. Garapen iraunkorrerako hezkuntzari buruzko metodologiak gutxienek dira. Hartzaileen artean, gaiak eta metodologiak gainjarri egiten direla ikusi da, eta baserriaren, basoaren eta padura/ibaia/ibaia-darraren inguruko proposamenak dira nagusi. Ez dago estandarizatutako programazio-formaturik.
IG	UBEko ekipamendu autonomoetan GIHren aldeko apustu argia eta beharrezkoa egin da, eta hitzez adierazi da hori	Eragileen arteko gaikuntza, koordinazioa eta lankidetzak lortzeko beharra ikusi da, GIHren alorrean eguneratze aldera. Gaur egun, behar hori ez dago gauzaturik, lehenetsuna eman baitaie beste alderdi batzuei, hala nola informazio eta interpretazio koherentei.
HB	Beharrezkoa da hezkuntza-programetan alderdi sozialak sartzea, ez bakarrik ingurumenari buruzkoak	Ez dago UBEn ildoei buruzko informazio adostu eta argirik, gaikuntza lortzeko aukera ematen dienik eragileei nahiz administrazio eta gerentzia elkartuei.
HB	Ebaluazioa kalitatezko funtsezko alderdia da, eta ez dago horrelakorik emaitzei buruzko txostenetan eta jakinarazpenetan	Ekipamendu bakoitzak bere programen barne-ebaluazio espezifikoa egiten du. Ebaluazio hori deskribatzailea da, eta erabiltzaileen kopuruan eta balorazio subjektiboan dago oinarrituta. Ez da ebaluazio-irizpide bateraturik antzeman, UBeko metodologiei eta ekintzei dagokienez.

N	EAEn alorrean, Ingurumen Hezkuntzako jarduerentzako eta ekipamenduentzako kalitate-irizpideak eta -adierazleak daude. 2010. urtean landu ziren, baina ez dira inoiz aplikatu.	Euskadiko Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen Elkartek (HABEA) irizpideei eta adierazleei buruz idatzitako lana ez da batere ezaguna EAEn; bai, ordea, estatu-mailan (CENEAM). Gaur egun ez da aplikatzen. Ekipamenduetan kalitatearen kulturaren aldeko interes handia dago (interesgarria da Madariaga dorretxeak ISO 9001:2008 lortu izana).
---	---	--

## IKASTETXEETAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAK ETA ESKOLAKO AGENDA 21

UBEko udalerrietako ikastetxeek ere garapen iraunkorrerako hezkuntza-programak egiten dituzte egunerako antolakuntzan.

Ikastetxe askok ezagutza-, sentsibilizazio- eta jardute-praktika autonomoak eramaten dituzte aurrera ingurune hurbilean. Lehen aipatutako ekipamendu autonomoekin elkarlanean garatutako hezkuntza-programen bitartez ere garatzen dituzte jarduera horiek.

Eta askok sarean zabaltzen diren garapen iraunkorrerako hezkuntzarako programetan parte hartzen dute (programa horien ezarpenak eta antolakuntzak EAEn mugak gainditzen ditu). Besteak beste, honako hauek nabarmenduko ditugu:

UBE-N EGINDAKO GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZARAKO PROGRAMA NAGUSIAK TESTUINGURU FORMALEAN (GH.9)		
HEZKUNTZA-PROGRAMAK	IDEIAK	IKASTETXEAREN PARTAIDETZA
Escolako Agenda 21 (EA21)	Ingurumen-hobekuntzarako urteko egitasmo bat garatzea eskolan. Tokiko Agenda 21en udal-ereuari jarraitzen dio. Parte hartzen duten ikastetxeei "Eskola berde" esaten zaie. Haien kalitatea saritzeko, IRAES 21 bikaintasunaren saria ematen zaie.	Ikastetxeak bere borondatez egiten du bat programarekin. Ingurugela-CEIDAK koordinatzen eta laguntzen ditu.
Aztertu: Azterkosta	Gure kostaldeak hobetzeko, aztertze eta zaintzeko ekintzak garatzea. Nazioarteko <i>Coastwatch</i> ereduari jarraitzen dio.	Ikastetxeak bere borondatez egiten du bat programarekin. Ingurugela-CEIDAK koordinatzen eta laguntzen ditu.
Aztertu: Ibaialde	Gure ibaiak eta ibai-ekosistemak hobetzeko, aztertze eta zaintzeko ekintzak garatzea. Ingurune urtarrak babesteko nazioarteko eredu bati jarraitzen dio.	Ikastetxeak bere borondatez egiten du bat programarekin. Ingurugela-CEIDAK koordinatzen eta laguntzen ditu.
Aktibatu*	Escolatan, ingurumena hobetzeko eguneroko ekintza txikiak garatzea. GAP ( <i>Global Action Plan</i> ) elkarte ingelesaren ereduari jarraitzen dio.	Ikastetxeak bere borondatez egiten du bat programarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak koordinatzen eta sustatzen du.
Euronet 50/50 max	Eraikuntza publikoetan energia aurrezte sustatzen duen europar proiektu bat da, energiaren erabileran eta kudeaketan jardunbide egokiak aplikatzea sustatzen duena.	

\*Durangaldean ezarritako programa pilotua. UBEren eremuan, Zornotzan ezarri da, eta etorkizunean, Busturialdean ezartzea dago aurreikusita.

Iturria: geuk egina, hezkuntza-kudeatzaile nagusien webguneetan aurkitutako informazioa oinarri hartuta.

UBEren parte diren udalerrietan EA21ekin bat egiten duten 24 ikastetxe daude; horrek esan nahi du **ikastetxeen % 100ek EA21en hartzen duela parte** (ehuneko horretan, ez dira sartu


GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA-ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN

haurreskolak –0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza–; izan ere, EA21 programa ez dago haiei zuzenduta).

Ikastetxe horien artetik 9 IRAES 21 ikastetxe-sareko kide dira, egiaztatze-prozesu bat igaro ondoren “Iraunkortasunerako eskola” izendapena jaso baitute.

“IRAUNKORTASUNERAKO ESKOLA” BEREIZGARRI GORENA JASO ETA IRAES 21 SAREAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEAK (GH.10)	
Allende Salazar Haurreskola	Gernika-Lumo
Seber Altube Ikastola	Gernika-Lumo
San Fidel Ikastola	Gernika-Lumo
Sagrado Corazon Ikastetxea	Bermeo
Montorre Herri Ikastetxea	Gautegiz Arteaga
Karmengo Ama Ikastetxea	Zornotza
Lauaxeta Ikastola	Zornotza
Urretxindorra LHI	Muxika
Barrutia Eskualde Ikastetxe Publikoa	Arratzu


Iturria: geuk egina, Ingurugelaren webgunean oinarrituta.



Iturria: 6 ikastetxek eta Ingurugelak osatutako laginak gehien landutako gaiak buruz egindako balorazioak.

URDAIBAICO IKASTETXEETAN LEHENTASUNEZ LANDU BEHARREKO GAIK (partaidetza-prozesuan landutakoak) (GH.12)		
Ura	Natura-baliabideak	Gizartean kezka eragiten duten gaiak ( <i>frackinga</i> , hondakinen kudeaketa, energia-iturriak).
Energia	Giza garapena	
Hondakinak	Ekonomia	


Iturria: eragileek partaidetza-prozesuaren eta galdeketen bitartez egindako proposamenak.



Iturria: 6 ikastetxek eta Ingurugelak osatutako lagin batek egindako jardueratipologiari buruzko balorazioak.

IG	UBEko ikastetxeek balorazio ona egiten dute EA21 programaren inguruan	Eskola-liderren, Ingurugeletako teknikarien eta udaletxeetako tokiko teknikarien artean egun dagoen koordinazioa balioesten dute.
IG	EA21 programa egonkorra da	Programaren jarraitutasuna sustatzeko beharra dago, eta kontuan hartu behar da gaur egun administrazioaren aldetik baliabide gutxiago, koordinazio gutxiago eta diru kopuru gutxiago dagoela. Hobetu egin behar da eraginkortasuna honako alor hauetan: koordinazioa, baliabideak, ikasleen partaidetza eta tokiko egitasmoetako integrazioa.
IG	UBEko ikastetxeek ondo parte hartzen dute EA21 programan	Eskualdeko ikastetxe guztiek (haurreskolek, helduentzako hezkuntzako ikastetxeek, hizkuntza-eskolek eta nautika-eskolek izan ezik) eskolako agenda 21 programan parte hartzen dute (bai eta beste proiektu batzuetan ere), eta beste urte batzuetako esperientzia dute. Nabaria da eskualdearen nortasuna eta emaitzen eragin positiboa Biosfera Erreserban. Gaur egun, 9 ikastetxek dute IRAES 21 ( <i>iraunkortasunerako eskola</i> ) ziurtagiria.
IG	EA21 programaren eta Ingurugelen lanari esker, azken urteetan dibertsifikatu egin dira landutako gaiak	EA21 programan egindako lanari esker, dibertsifikatu egin dira ingurumen-hezkuntzako gaiak GIHren ikuspegi globalagoan sartzeko.

N	Gaiak zehatzak dira, eta ikastetxeek aukeratu dituzte	Aukeratuak proposamenak mota askotakoak dira, eta parte hartzen duten ikastetxeek legitimatu dituzte. Inkesten arabera, hauek dira gai landuenak: kontsumoa, energia, aztarna ekologikoa eta garraioa/mugikortasuna. 2006az geroztik, hondakinek eta ikastetxeen ingurumen-kudeaketa nagusitasuna galtzen ari dira. Gaur egun, interes handia eragiten dute ekonomia sozialak eta ikastetxeetako giza garapenak.
IG	Ikastetxe bakoitzak egindako EA21ko hezkuntza-programek mota askotako metodologiak dituzte haien garapenean	GIHren ezaugarria da metodologiaren aplikazio zehatz bat, eta EA21 programaren aplikazioan ikus daiteke hori.
IG	EA21 programan parte hartzen duten ikastetxeek hezkuntzaren alorreko jardunbide egokiak dituzte GIHri lotutako eskola-programetan	Ingurumen-kanpainak, tokiko proiektuak eta udal-foroak (udalbatzen antzeko eztabaidarako eta erabakiak hartzeko taldeak; administrazioetako teknikariek parte hartzen dute haietan) nabarmenatu dira. Ohiko irteerez gain, jardunbide horiek ere egiten dira. Etorkizunean landu beharreko gaietan, alderdi sozialak barnean hartzeko joera garrantzitsua ikusi da, hala nola proiektu sozial komunitarioetan (Ikaskuntzarako eta Zerbitzurako metodologiak, adibidez).
IG	UBEren beharretara ondo egokituta daude	Proiektuak ondo araututa daudela eta behar bezala heltzen direla ikusi da, bai eta etengabeko interesa dagoela ere GIHren inguruan eta UBEko berezko gaiei buruz. UBEko Zerbitzuarekiko eta Udaletako teknikariekiko koordinazioa (beharrezkoa eta ona) balioesten dute.
N	Ebaluazio koherenteak EA21 ikastetxeetan	Lortutako emaitzak ondo jakinarazten eta eskualdatzen dira, memoriaren bitartez. Ebaluazio-plan solidoa, etengabea eta adostua da (urtero hobetzeko programetan oinarritua –4 urtetik behin, ekobarometroa–), eta IRAES 21 sarean txertatzen ditu "Iraunkortasunerako Eskola" izendapena jaso duten ikastetxeak (5 urtetik behin). Ebaluazioa hobetzeko beharra esplizitu egin da, egindako proposamenean udal-adierazleak erantsita; izan ere, zenbait kasutan, ikastetxeen testuinguruan egindako balorazioak dira.
HB	Ez dago garapen iraunkorrerako hezkuntzarako plan integraturik Urdaibaiko Biosfera Erreserban	Ez dago komunikaziorik eta koordinaziorik garapen iraunkorrerako hezkuntzan dabilzan eragileen artean, ez eta horien eta Erreserbako organo kudeatzailearen artean ere; horren ondorioz, zaila da UBEren eraginkortasun nabarmenagoa lortzeko funtsezko programa hori aplikatzea (tokiko ingurumen-proiektuak).
HB	UBEri buruzko hezkuntza-material batzuk ez dira erabiltzen	Ingurugeltan, bada UBEren irudiari, haren balioei eta abarri buruzko hezkuntza-materiala, baina gaur egun ez da erabiltzen.



Iturria: Eleizalde Ikastolaren, Gernikako San Fidel Ikastolaren, Ingurugelaren, Gernika Institutuaren, Montorre eskolaren, Seber Altube Ikastolaren, Barrutialderen eta Jose Mari Uzelai Ikastetxearen galdeketa.

### 3.3.2.3 GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZAN JARDUTEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

HB	Eragileen arteko koordinazio- eta lankidetzaren plan estrategikoa falta da	Eskolen, ekipamenduen eta UBEn artean sinergiak lortzen aurrera egiteko beharra lehentasunezkoa da.
IG	Tokiko eragileen eta irakasleen arteko koordinazio-maila ona da (harremanen mailan nahiz EA21 programaren barruan)	Eskola-liderren, Ingurugeletako teknikarien eta udaletxeetako tokiko teknikarien artean egun dagoen koordinazioa balioesten dute.



### 3.3.3 LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK

LDE 25.	Ekipamendu autonomoek kalitate ona dute, azpiegiturei, baliabideei eta ikastetxeen eskura dagoen GIHren alorreko eskaintzari dagokienez.
LDE 26.	Garapen iraunkorrerako hezkuntzarako programak egiten dituzten ekipamendu autonomoetan, lankidetzak eta koordinazio-estrategia bateratu bat falta da hezkuntza-alderdiei dagokienez.
LDE 27.	Ekipamenduaren arabera, GIHrako aplikatutako metodologia-maila ez da berdina.
LDE 28.	Egindako praktikan, paradigma-aldaketa baten beharra ikusi da, ingurumen-hezkuntzatik Garapen iraunkorrerako hezkuntzara igarotzeko.
LDE 29.	UBEn, hezkuntza-proposamen ez-formalak aholkatu eta dinamizatuko dituen eragile baten beharra dago, CEIDA historikoen antzekoa eta inguruetan kokatua (UBEn).
LDE 30.	Ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programaren bitartez lantzen dute garapen iraunkorra, eta oso kalitate onez eta parte-hartze handiarekin egiten dute hori.
LDE 31.	UBEren ildo estrategikoak jakinarazteko eta partekatzeko beharra dago, EA21 programaren bitartez ekipamendu autonomoek eta ikastetxeek beren ekintzak lurraldearen benetako beharrei lotze aldera.


### 3.4 PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA

#### DIAGNOSIAREN HELBURUA

Ebaluatutakoa:

- Prestakuntzarako eta gaikuntzarako eskaintza eta eskaria nola ahokutzen diren: lurraldean betetako eta bete gabeko beharrak, garapen iraunkorrerako behar adinako prestakuntza lortze aldera.
- Garapen iraunkorrerako prestakuntza teknikorako eskaintza Erreserbako udalerrietan, funtsezkoak diren eremuetan eta hartzaileak kontuan hartuta:
  - Prestakuntza arautua.
  - Prestakuntza okupazionala.
  - Prestakuntza.
- Erreserbaren garapen iraunkorra eta biztanleen bizi-kalitate hobea lortzen lagundu dezaketen eragile nagusien garapen iraunkorrerako prestakuntza-/gaikuntza-maila.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako garapen iraunkorrerako hainbat alorretan funtsezkoak diren eragileen gaikuntza-beharrak.

#### 3.4.1 BALORAZIO PARTAIDETUA



GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA-  
ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN

OHARRA: Parentesien arteko datuen errotuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua adierazi da. Partaidetzako topaketetan egindako balorazioak hartu dira barnean.


GARAPEN IRAUNKORRERAKO PRESTAKUNTZAREN/GAIKUNTZAREN BATEZ BESTEKO MAILA ERRESERBAN – ERAGILEEN BALORAZIOA (GA.2)					2,7
1. Oso urria	2. Hobetu daiteke	3. Egokia	4. Nabarmena	5. Bikaina	

Iturria: partaidetza-prozesuaren eta eragileen galdeketen emaitzetan oinarrituta egina.


### 3.4.2 DAGOEN PRESTAKUNTZA-/GAIKUNTZA-ESKAINNTZA

GARAPEN IRAUNKORRERAKO PRESTAKUNTZA/GAIKUNTZA EGITEN DUTEN ERAGILEAK (GA.3)	JARDUERA	KOKAPENA
Behargintza Gernika-Lumo	Eskualdean enplegua sustatzea	Gernika-Lumo
Behargintza Bermeo, Mundaka, Sukarrieta	Eskualdean enplegua sustatzea	Bermeo
Lanbide Gernika-Lumo	Euskal Enplegu Zerbitzua	Gernika-Lumo
Ingurugela	Ikastetxeetako irakasleentzako laguntza eta aholkularitza. Ingurumen-hezkuntzako planak eta programak koordinatzea unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman.	Bilbo
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. GARATU.	Irakasleen hobekuntzarako programa.	–
Urremendi LGE	Landa Garapen Elkartea	Gernika-Lumo
HAZI. Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren korporazioa.	Lehen sektorearen eta elikagai-sektorearen lehiakortasuna eta bideragarritasuna sustatzea, bai eta landa eta itsasertz ingurunearen garapen iraunkorra ere	Arkaute (Araba) (Ikastetxe laguntzailea: Derioko Nekazaritza Eskola)

Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan eta eragileei egindako elkarrizketetan oinarrituta.



Iturria: Behargintza Gernika-Lumoren webgunean (<http://www.lanbide-ekimenak.com/es/HaziTaHezi/>) adierazitako eskualdeko prestakuntza-eskaintza.



Oharra: HAZIren prestakuntza bat dator 2014ko lehen hiruhilekoan emandakoarekin.


Iturria: Honako hauek emandako informazioa: Lanbide Gernika-Lumo, Behargintza Gernika-Lumo, Behargintza Bermeo, Ingurugela eta Urremendi, bai eta GARATU programaren, Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedraren eta HAZIren webguneak ere.

GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA-ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN



Oharra: HAZiren prestakuntza bat dator 2014ko lehen hiruhilekoan emandakoarekin.

Iturria: Honako hauek emandako informazioa: Lanbide Gernika-Lumo, Behargintza Gernika-Lumo, Behargintza Bermeo, Ingurugela eta Urremendi, bai eta GARATU programaren, Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedraren eta HAZiren webguneak ere.



Oharra: HAZiren prestakuntza bat dator 2014ko lehen hiruhilekoan emandakoarekin.

Iturria: Honako hauek emandako informazioa: Lanbide Gernika-Lumo, Behargintza Gernika-Lumo, Behargintza Bermeo, Ingurugela eta Urremendi, bai eta GARATU programaren, Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedraren eta HAZiren webguneak ere.

Udalsarea 21en bitartez (IHOBE) prestakuntza eskaintzen da Euskal Administrazio Publikoko langileentzat (HAE Erekin batera antolatuta), bai eta garapen iraunkorrerako prestakuntza- eta dibulgazio-tailerrak ere, Udalsarea 21ekin bat egiten duten udaletako langileei zuzenduta (UBEko kide diren 22 udalerrietatik 18 Udalsarea 21eko kide dira).

HB	Eskualdeko lanbide-heziketako ikastetxeek ez dute garapen iraunkorraren alorreko prestakuntza-eskaintza egonkorrik	Bermeo Itsas Arrantza Eskolan, Gernika Institutuan (BHI-DBH) eta Barrutia Institutuan (BHI-DBH) ez dago iraunkortasunari buruzko edukiak dituen erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-ziklorik.
HB	Eskualdeko prestakuntza-eskaintzan, jardunbide egokiei eta garapen iraunkorrari buruzko prestakuntzaren ehuneko txikia	Eskualdean erakundeek, enpresek, euskaltegiek eta beste heziketa-zentro batzuek emandako prestakuntza-eskaintzaren % 4 baino ez da garapen iraunkorrari lotutako alderdiei buruzkoa.
IG	Eskualdeko Garapen Agentziek garapen iraunkorraren alorreko prestakuntza okupazionala eskaintzen dute	Behargintza Gernika-Lumok, Behargintza Bermeo, Mundaka eta Sukarrietak eta Lanbide Gernika-Lumok prestakuntza okupazionala eskaintzen dute garapen iraunkorrari lotutako hainbat alderditan.
IG	Eskualdeko Garapen Agentziak sektore arteko foro bat sortzen eta dinamizatzen ari dira	Eskualdeko Garapen Foroa (Foro 15) ari da egituratzen. 15 eragile sozioekonomikok osatzen dute, gaikuntzaren alorrean eskualdean dauden beharrak hautemateko xedez.
IG	Egungo lanbide-heziketako ikastetxeek prestakuntza handia dute, eta alde zuzeneko joera ona dute ekimen berrietan esku hartzeko	Eskualdeko gaikuntza-agentzien (Behargintza) eta lanbide-heziketako ikastetxeen arteko harremana oso ona da, eta azken horietan, prestakuntza eta inplikazio handia antzeman dira, garapen iraunkorrerako prestakuntza-/gaikuntza-ekimen berriak garatzeko.
IG	Irakasleentzako prestakuntza- eta gaikuntza-eskaintza zabala, Eskolako Agenda 21 programaren barruan	Eskualdean egindako garapen iraunkorrerako prestakuntzaren % 50 baino gehiago Eskolako Agenda 21 programaren barruan egiten da, eta unibertsitatez kanpoko irakasleei dago zuzenduta; horrek esan nahi du nabarmen prestatzen direla prestatzaileak/hezitzaileak, eta zeharka, bai eta hezkuntza-komunitate osoa ere.
IG	Udalsarea 21ek (beste erakunde batzuekin lankidetzan) teknikariei eta udal-arduradunei zuzendutako garapen iraunkorrerako prestakuntza eskaintzen du	2014. urterako prestakuntza-eskaintzak honako hauei buruzko prestakuntza jorratzea du aurreikusita: Natura Sarea eta KBEak, TA21en adierazleak; Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea; Biodibertsitatea (espezie exotikoak eta inbaditzaileak); Lurzoru Kutsatuak; Osasuna eta Hiri Garapen Iraunkorra; Hiri Hondakinen Tokiko Kudeaketa; Eraikuntzako eta Eraispenerako Urak eta Hondakinak.
IG	Urremendiren gidaritzapean, badago turismo-sektoreari zuzendutako prestakuntza-eskaintza	Duela 4 urtetik, Urremendi LGEak Helmugako Turismo Kalitateko Sistema Integral baten Jardunbide Egokiei buruzko prestakuntza ematen du, eskualdeko turismo-establezimenduei zuzenduta.
IG	HAZiren gidaritzapean, badago lehen sektoreari zuzendutako prestakuntza-eskaintza	HAZik –Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren korporazioa– prestakuntza-eskaintza zabala du EAEn lehen sektorean eta elikagai-sektorean lehiakortasuna eta bideragarritasuna sustatzeko, bai eta landa eta itsasertz ingurunearen garapen iraunkorra sustatzeko ere.

GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA-  
ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN

HB	Eskualdearen garapen iraunkorrerako esanguratsuak diren zenbait eragilek ez dute prestakuntza-/gaikuntza-eskaintza espezifikorik	Ez dago garapen iraunkorrerako esanguratsuak diren zenbait gairen eta eragileren inguruko prestakuntza-/gaikuntza-eskaintza espezifikorik eskualdean, ez eta lurralde historikoan ere, hala nola basogintzaren, arrantzaren eta industriaren inguruan.
HB	Autonomia-erkidegoko gainerako eremuekin alderatuta, UBE hartzen duen lurraldean ez dago garapen iraunkorraren alorreko prestakuntza gehiago	UBEn emandako prestakuntza- eta gaikuntza-eskaintza ez da EAE osoan eskaintzen dena baino nabarmen handiagoa.
HB	Bitarteko eta baliabide gutxi	Gaikuntza-eragileen arabera, ez dira nahikoa eskura dauden bitartekoak eta baliabideak; izan ere, horiekin ezin da bermatu gaikuntzarako eta sustapen ekonomikorako programen jarraitutasuna.

### 3.4.3 GIZARTE-ERAGILE NAGUSIEN GARAPEN IRAUNKORRERAKO PRESTAKUNTZARAKO/GAIKUNTZARAKO BEHARRAK

SEKTOREA	PARTAIDETZA-PROZESUAN ERAGILEEK ADIERAZITAKOAREN ARABERA, ASE GABEKO EGUNGO PRESTAKUNTZA-/GAIKUNTZA-BEHARRAK (GA.8)
Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan jarduten duten langileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- UBeren ingurua eta aberastasun orokorra ezagutzea.</li> <li>- Ondare geologikoari buruzko ezagutza.</li> <li>- Tokiko eta lurraldeko inplikazioak garapen iraunkorrerako estrategiak abian jartzean.</li> <li>- Lurraldearen ikuspegi oso bat erabiltzea, garapen iraunkorrerako hezkuntza eskaintze aldera.</li> <li>- Ekosistemen Zerbitzuak Giza Ongizaterako paradigma berria barneratzea.</li> <li>- Naturaguneen kudeaketa eta gidarien ikastaroa.</li> <li>- Honako ikastaro hauek: hegaztiei behatzeko ikastaroa, paisaia interpretatzeko ikastaroa, energia berriztagarriei buruzkoa, nekazaritza ekologikoari buruzkoa, hondakinen kudeaketari buruzkoa.</li> <li>- Hizkuntzak.</li> </ul>
Hezkuntza ez-formaleko zentroetako hezitzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pedagogia.</li> <li>- Garapen iraunkorraren alorreko ezagutza teknikoa.</li> <li>- Prestakuntza integrala behar da (ezagutza kulturala, soziala, politikoa, ekologikoa, emozionala, etab.)</li> <li>- Adimen interpersonala, intrapersonala, emozionala eta espaziala.</li> <li>- Ingurunearen ezaguera.</li> <li>- Natura-gidarien prestakuntza.</li> <li>- Hegazti-faunaren behaketa.</li> <li>- Parte-hartzea.</li> <li>- Programen ebaluazioa.</li> <li>- Berrikuntza metodologikoa.</li> </ul>
Eskola-irakasleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Garapen iraunkorraren esparru orokorra.</li> <li>- Prestakuntza integrala behar da (ezagutza kulturala, soziala, politikoa, ekologikoa, emozionala, etab.).</li> <li>- Adimen interpersonala, intrapersonala, emozionala eta espaziala.</li> <li>- Ekologian, gizarte-zientzietan eta natura-zientzietan. Ingurunearen ezaguera, baliabideen diagnostia eta ezagutza.</li> <li>- Parte-hartzea.</li> <li>- Programen ebaluazioa.</li> <li>- Berrikuntza metodologikoa.</li> </ul>
Zerbitzuen sektorea eta turismoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer da Biosfera Erreserba, balioak, helburuak, parke naturalaren eta Biosfera Erreserbaren arteko desberdintasunak, etab.</li> <li>- Babestutako naturaguneetan onargarriak diren eta ez diren jokabideak.</li> <li>- Kalitatezko turismoan eta ingurumenaren alorreko jardunbide egokietan prestatzea.</li> <li>- Tokiko hornitzaileak/baliabideak erabiltzearen garrantzia. Haiek ezagutzea.</li> </ul>
Informazioko langileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Turismo-bulegoetako langileek turistak informatzeko oinarritzko ezagutzak dituzte, baina ez hori baino gehiago. Beharrezkoa da adierazitako puntuen inguruko prestakuntza zerbitzuen sektorean eta turismo-sektorean.</li> </ul>

Iturria: partaidetza-prozesuaren eta eragileen galdeketen emaitzetan oinarrituta egina.



#### 3.4.4 LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK

LDE 32.	Eskualdeko gaikuntza-agentzia guztiek (Behargintzak eta Lanbide) prestakuntzaren bat eskaintzen dute garapen iraunkorraren alorrean, baina eskaintza oso mugatua da.
LDE 33.	Eskualdeko prestakuntza-eskaintzan, jardunbide egokiei eta garapen iraunkorrari buruzko prestakuntzaren ehuneko txikia.
LDE 34.	Ez dago garapen iraunkorrerako esanguratsuak diren zenbait gairen eta eragileren inguruko prestakuntza-/gaikuntza-eskaintza espezifikorik eskualdean, ez eta lurralde historikoan ere (hala nola basogintzaren, arrantzaren eta industriaren inguruan).
LDE 35.	Urremendik turismo-sektoreari zuzendutako garapen iraunkorrerako prestakuntza eskaintzen du (Helmugako Turismo Kalitateko Sistema Integral baten Jardunbide Egokiak), baina askoz gehiago gara daitezke.
LDE 36.	Eskualdeko Garapen Agentziak sektore arteko foro bat sortzen eta dinamizatzen ari dira gaikuntzaren eta sustapen ekonomikoaren alorrean.
LDE 37.	Bitarteko eta baliabide gutxi daude gaikuntza eta sustapen ekonomiko iraunkorrerako programen jarraitutasuna bermatzeko.

### 3.5 IKERKETA ZIENTIFIKOA

#### DIAGNOSIAREN HELBURUA

Ebaluatutakoa:

- Biosfera Erreserban jardun-eremua duten ikerketa-zentroak eta egindako ikerketa zientifikoak (1997-2013), bai eta haien gaiak ere.
- Ikerketaren kalitatean hobetu beharreko alderdiak.
- Ikerketaren aplikagarritasun-maila gune babestuen plangintzan eta kudeaketan, bai eta erabakiak hartzean ere.
- Garapen iraunkorrerako kudeaketa eta gobernantza hobea lortze aldera, datuak lortzeko ikerketa zientifikoaren eta jarraipenaren behar estrategikoak.
- Ezagutza Erreserbaren kudeaketan eta garapenean inplikaturako eragileei bideratzeko eta transmititzeko tresnak.
- Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Euskal Herriko Unibertsitateko UNESCO katedra, Urdaibain egindako ikerketa biltzeko modua den aldetik.

#### 3.5.1 IKERKETA-ZENTROAK

LANAK URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN ETA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBARENTZAT EGITEN DITUZTEN IKERKETA-ZENTRO NAGUSIAK (IZ.2)	JARDUERA	KOKAPENA
Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko Unesco Katedra	Iraunkortasunari buruzko ikerketa. Urdaibaiko Biosfera Erreserba erreferentziatzeko gunea da ikerketaren alorrean.	Leioa
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Hainbat Sailatutako ikertzaileak	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba
Deustuko Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Bilbo
ADES Espeleologia Taldea	Barrunbearen bilaketa eta esplorazioa Urdaibain eta Lea-Artibain.	Gernika-Lumo
AGIRI Arkeologia Taldea	Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ondare historiko-arkeologikoaren azterketa, hedapena eta kontserbazioa.	Gernika-Lumo
Azti Tecnia	Itsas Ikerketako Unitatea.	Sukarrieta
NEIKER Sozietate Publikoa	Nekazaritza- eta elikagaigintza- alorreko ikerketa eta transferentzia, nekazaritzako elikagaien sektoreari egindako balio erantsia erreferentziatzen hartuta.	Derio
Urdaibai Bird Center (Aranzadi Zientzia Elkarte)	Hegaztiei, haien migrazioei eta haien bizileku diren habitatei buruzko ikerketa.	Gautegiz Arteaga
Basque Centre for Climate Change (BC <sup>3</sup> )	Klima-aldaketaren kausei eta ondorioei buruzko ikerketa.	Bilbo

GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO-, IKERKETA-, GAIKUNTZA-  
ETA HEZKUNTZA-PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN

LANAK URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN ETA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBARENTZAT EGITEN DITUZTEN IKERKETA-ZENTRO NAGUSIAK (IZ.2)	JARDUERA	KOKAPENA
Gernika Gogoratzuz Gernikazarra Ingeba Eusko Ikaskuntza	Eskualdeko beste eragile batzuk	
ESPAINIAKO UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA-ZENTROAK		
Almeríako Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Almería
Ingurumen Diagnosiaren eta Uraren inguruko Ikerketen Institutua - Ingurumen Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena (IDAE-CSIC)	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Bartzelona
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Bartzelona
Bartzelonako Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Bartzelona
Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoa	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Bartzelona
Kantabriako Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Kantabria
Gironako Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Girona
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Madril
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Madril
Oviedoko Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Oviedo
Santiago de Compostelako Unibertsitatea	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Santiago de Compostela
Valentziako Unibertsitate Politeknikoa	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Valentzia
LANAK URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN ETA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBARENTZAT EGITEN DITUZTEN IKERKETA-ZENTRO NAGUSIAK (IZ.2)	JARDUERA	KOKAPENA
BESTE UNIBERTSITATE BATZUK*		
Helmholtz Centre for Environmental Research-UFZ	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Alemania
Technische Universität München (Municheko Unibertsitate Teknikoa)	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Alemania
Université de Pau et des Pays de l'Adour	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Frantzia
University of Cambridge	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Erresuma Batua
University of Plymouth	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Erresuma Batua
University of Southampton	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Erresuma Batua
East Carolina University	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Ameriketako Estatu Batuak

LANAK URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN ETA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBARENTZAT EGITEN DITUZTEN IKERKETA-ZENTRO NAGUSIAK (IZ.2)	JARDUERA	KOKAPENA
University of Minnesota	Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua.	Ameriketako Estatu Batuak


Iturria: geuk egina, eragileen zerrenda, erreferentzia bibliografikoak eta Interneteko bilaketak oinarri hartuta.

\*Unibertsitate hauetan Urdaibairi buruzko ekoizpen zientifikoa identifikatu da, erreferentziak aldizkarietan argitaratutako artikuluen bidez.


IG	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedra, UBeko ikerketa zientifikoaren erreferentzia- eta koordinazio-zentroa den aldetik	Katedrak, oro har, Euskal Autonomia Erkidegora zuzentzen ditu ikerketa-, hezkuntza- eta dibulgazio-jarduerak, eta bereziki, UBera. Haren ekintzetako bat izan da UBeri buruz dagoen diziplina arteko ezagutza zientifiko hedatua biltzen saiatzea eta hura laburbiltzea; hala, <i>Urdaibaiko Gida Zientifikoa</i> argitaratu zen, 2011n.
IG	Ikerketaren alorrean aktiboak diren zenbait elkarte eta enpresa daude eskualdean	Zenbait elkartek funtsezko eginkizuna betetzen dute beren alorretako ikerketan; besteak beste, honako hauek: Aranzadi Zientzia Elkartek –Urdaibai Bird Center kudeatzen du–, ADESek –espeleologiaren alorrean–, AGIRIK –arkeologiaren alorrean– eta zenbait zentro teknologikok, hala nola Azti Tecnaliak –itsas ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren alorrean–. Elkarte horiek guztiak UBeri dagokion eskualdean daude.
IG	<i>Tecnalia research &amp; innovation Fundazioak</i> zuzenean lotzen du ikerketa nekazaritza- eta ingurumen-sektoreen garapen ekonomikoarekin eta lehiakortasunarekin	Nekazaritzaren eta ingurumenaren alorrean UBEn proiektuak egiten dituen ikerketa eta transferentzia teknologikorako erakunde bat izateak aukera handia eskaintzen du alor horietako ikerketaren eta garapen iraunkorraren arteko lotura indartzeko.
IG	Garapen Iraunkorrerako eta Ingurumen Hezkuntzarako Ikerketarako Laguntzen Deialdia	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO katedrak Ikerketarako Laguntzen Deialdi bat egin zuen 2003-2009 aldian, ikerketa aplikatuko zenbait proiektu finantzatze aldera; batez ere, EAEn Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko diziplina arteko gaien ingurukoak, EAeko Natura 2000 Sareko sistemara eta UNESCOko beste zientzia- eta hezkuntza-programa batzuetara hedatu zitezkeenak. Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Bioaniztasuneko Zuzendaritzaren diru-laguntza bat lortu zen.

### 3.5.2 URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBARI BURUZKO EKOIZPEN ZIENTIFIKOA


12. eranskinean, PICE-IGHP lantzeko prozesuan identifikatutako artikulu zientifikoaren eta ikerketa-proiektuen zerrrenda bat dago aurkeztuta.




Iturria: Argitalpen zientifikoaren datu-baseak: *Web of knowledge*: <http://wokinfo.com/>; *SpringerLink*: <http://www.springer.com> eta *ScienceDirect*: <http://www.sciencedirect.com/>




Iturria: *Web of knowledge*: <http://wokinfo.com/>; *SpringerLink*: <http://www.springer.com> eta *ScienceDirect*: <http://www.sciencedirect.com/>. Kuartilen banaketa egiteko kontuan hartu da 5 urteko erantsitako inpaktu-indizea (2008-2012). 3 artikulutan, 2012ko inpaktu-indizea erabili da, eta beste 2 artikulutan, 2008koa, 5 urtekoa falta zelako.



Iturria: Web of knowledge: <http://wokinfo.com/>; SpringerLink: <http://www.springer.com> eta ScienceDirect: <http://www.sciencedirect.com/>. Kuartilen banaketa egiteko kontuan hartu da 5 urteko erantsitako inpaktu-indizea (2008-2012). 3 artikulutan, 2012ko inpaktu-indizea erabili da, eta beste 2 artikulutan, 2008koa, 5 urtekoa falta zelako.



Iturria: <http://millennium.ehu.es/> UPV/EHUko Bibliotekako katalogoak: UPV/EHU Tesiak. Hitz gakoa: Urdaibai, eta TESEO datu-basea: <https://www.educacion.gob.es/teseo/>



Iturria: UPV/EHUko Master Ofizialen arduradunek emandako Urdaibairi buruzko master-proiektuen zerrenda. )


<b>IG</b>	<p>UBE izendatu zenetik, Urdaibairi buruzko ekoizpen zientifikoak argi egin du gora</p>	<p>Erreferentziazko aldizkarietan argitaratutako artikuluzientifiko kopuruak, doktorego-tesiek eta UPV/EHUko master-proiektuek kuantitatiboki erakusten dute joerak gora egin duela denborak aurrera egin ahala.</p>
-----------	---	--

### 3.5.2.1 LAGUNTZEN DEIALDIA


Laguntzen bi deialdi egin dira:

- Hainbat urtetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza (zientzia-politika) eta Ingurumen Sailen arteko deialdi bateratua.
- UNESCO katedraren 2003-2009 aldiko laguntza-deialdia.

#### UNESCO KATEDRAREN LAGUNTZA-DEIALDIA.



Iturria: UNESCO katedrako elkarrizketa eta webgune korporatiboko informazioa



Iturria: UNESCO katedrako elkarrizketa eta webgune korporatiboko informazioa



### 3.5.2.2 JARRAIPEN ZIENTIFIKOA

UBEn iraunkortasunari lotuta interesgarriak diren hainbat parametroren jarraipen zientifiko ugari egiten dira. Hemen, nabarmenenen zerrenda egin dugu, baina baliteke beste batzuk ere egotea.

JARRAIPENAK (IZ.10)	HURA EGITEN DUEN ERAGILEA	MOTA
Biosfera Erreserben Espainiako Sarearen adierazle-sistema.	Biosfera Erreserben Espainiako Sarearen Bulegoa.	BEren funtzionamendua / BEren helburuak betetzea.
Jarraipen morfodinamikoa, hidrodinamikoa eta sedimentarioa itsasadarrean (UPV/EHU).	UBEren zerbitzua eta UPV/EHU.	Sedimentologia, hidrodinamika eta morfodinamika.
Laidan dunak berreskuratzeko proiektuaren jarraipena eta ebaluazio sedimentologikoa ( <a href="#">LIFE04NAT/ES/000031 Laida hondartzako duna-sistemaren berreskuratzea (Urdaibai)(2004-2007)</a> ).	UBEren zerbitzua eta UPV/EHU.	Sedimentologia, morfodinamika eta botanika.
Arrano arrantzalea ( <i>Pandion haliaetus</i> ).	Urdaibai Bird Center.	Fauna – Hegaztiak.
Antzandobi arrunta ( <i>Lanius collurio</i> ).	Urdaibai Bird Center.	Fauna – Hegaztiak.
Sai zuria ( <i>Neophron percnopterus</i> ).	Bizkaiko Foru Aldundia.	Fauna – Hegaztiak.
Anatidoak eta kaiok (MonnaBird tracking proiektua).	Urdaibai Bird Center.	Fauna – Hegaztiak.
Itsas hegazi migratzaileak eta negutarrak (Hegaztien eta itsas ugaztunen behaketarako sarea).	Lanius Ornitologia Elkarte.	Fauna – Hegaztiak.
Ubarroi mottoduna ( <i>Phalacrocorax aristotelis</i> ).	Bizkaiko Foru Aldundia. UBEko zerbitzua.	Fauna – Hegaztiak.
Mokozabala ( <i>Platalea leucorodia</i> ).	UBEko zerbitzua.	Fauna – Hegaztiak.
Koartzatxo txikia ( <i>Egretta garzetta</i> ) eta zikoina zuria ( <i>Ciconia ciconia</i> ).	Aranzadi Zientzia Elkarte.	Fauna – Hegaztiak.
Kaio hankahoria ( <i>Larus michahellis</i> ).	Aranzadi Zientzia Elkarte.	Fauna – Hegaztiak.
Enara arrunta ( <i>Hirundo rustica</i> ).	Urdaibai Bird Center.	Fauna – Hegaztiak.
Belatz handia ( <i>Falco peregrinus</i> ).	Bizkaiko Foru Aldundia.	Fauna – Hegaztiak.
Ekaitz-txoria ( <i>Hydrobates pelagicus</i> ).	Bizkaiko Foru Aldundia. UBEko zerbitzua.	Fauna – Hegaztiak.
Paseriformeen jarraipena, eraztunketa-estazioen bitartez.	Urdaibai Bird Center.	Fauna – Hegaztiak.
Bisoi europarra ( <i>Mustela Lutreola</i> ).	Bizkaiko Foru Aldundia.	Fauna – Ugaztunak.
Uretako apoarmatuak.	Bizkaiko Foru Aldundia.	Fauna – Narrastiak.
Intsektuak – tximeletak.	Aranzadi Zientzia Elkarte.	Fauna – Intsektuak.
<i>Cortaderia selloana</i> eta <i>Baccharis halimifolia</i> (landare inbaditzaileak).	UBEko zerbitzua	Flora.
LIFE proiektua: Euskal Autonomia Erkidegoko estuarietan Batasunaren intereseko habitatak leheneratzea - LIFE08NAT/E/000055 ( <i>Baccharis halimifolia</i> ).	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.	Flora exotikoa.

JARRAIPENAK (IZ.10)	HURA EGITEN DUEN ERAGILEA	MOTA
Gainazaleko uren egoeraren jarraipena.	Uraren Euskal Agentzia.	Uraren kalitatea.
Trantsizio-uren egoeraren jarraipena.	Uraren Euskal Agentzia.	Uraren kalitatea.
Lur azpiko ur-masen egoeraren jarraipena.	Uraren Euskal Agentzia.	Uraren kalitatea.
Eremu babestuen egoeraren jarraipena.	Uraren Euskal Agentzia.	Uraren kalitatea.
Airearen kalitatea zaintzeko sarea.	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.	Airearen kalitatea.
Oka ibaiaren goi-estuarioko leheneratze-proiektua: erabilera publikoaren, habitaten, floraren eta faunaren jarraipena.	UBEko zerbitzua.	Erabilera publikoa, habitatak, flora eta fauna.
Milurtekoko Ekosistemen deskribapena eta bilakaera.	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra. UPV/EHU.	Ekosistemak.
Besteak beste, honako ekosistema hauen jarraipena: ibaikoak, itsasertzeakoak, itsasokoak, karstikoak, basokoak (basoak eta belardiak) eta nekazaritzakoak (landazabala). Halaber, marearteko eta itsasadarreko floraren eta faunaren, ekotoxikotasunaren, higadura-prozesuen eta abarren jarraipena.	UPV/EHU.	Ekosistemak, flora, fauna eta ingurune fisikoa.
Eusko Jaurlaritzaren biodibertsitatearen datu-basea.	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.	Espezieak, ekosistemak eta habitatak.
Sistema karstikoaren jarraipena.	ADES Espeleologia Taldea.	Sistema karstikoa.
Olatuak eta mareak.	Estatuko portuak.	Itsas aldagaiak.
Emariak, aldagai meteorologikoak eta uren ezaugarri fisiko-kimikoak (estazio meteorologikoak, ur-emia neurtzeko estazioak, estazio hidrometeorologikoak eta uren kalitatea neurtzeko estazioak).	Bizkaiko Foru Aldundia. Euskalmet. <i>Meteorologiako Estatu Agentzia.</i>	Meteorologia eta ura.
UBEko biztanleriaren jarraipen soziologikoak.	UBEko zerbitzua.	Soziologia.
Honako alor hauetako aldagaiak: demografia, sozioekonomia, ingurumena, lurraldea, informazio-gizarte, Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa (I+G) eta Berrikuntza.	Eustat	Sozioekonomia eta lurraldea.
Iraunkortasun-adierazleak	BFA – Bizkaia 21	Tokiko iraunkortasuna.
Jarraipen hidrometeorologikoa	BFA	

Iturria: geuk egina, UBEko zerbitzuak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko webguneak emandako informazioa oinarri hartuta.

Berriki onartu da 358/2013 Dekretua, ekainaren 4koa. Horren bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren garrantzizko 4 leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak. Dekretu horretan, jarraipen berriak egitea ezarri da, eta gaur egiten direnei gehituko zaizkie horiek.

### 3.5.3 IKERKETAREN ETA KALITATEAREN EBALUAZIOA

IG	Artikulu zientifiko asko inpaktu handiko edo oso handiko aldizkarietan argitaratu dira	Aztertu diren Urdaibairi buruzko artikulu zientifikoena ia % 60 inpaktu-indize handiko eta ospe handiko edo oso handiko nazioarteko aldizkarietan argitaratu dira; horrek erakusten du UBeri buruz egiten den ikerketa kalitate handikoa dela.
HB	Ikerketa gutxi egiten da sozioekonomiaren, kulturaren eta kudeaketaren alorrean	Argitaratutako artikulu zientifiko, UPV/EHUko doktorego-tesi eta UPV/EHUko master-proiektu gehienak natura-inguruneari, ekosistemen funtzionamenduari eta natura-baliabideen kudeaketa eta kontserbazioari buruzkoak dira. Gizartearen eta ekonomiaren alorreko eta kudeaketa-alderdiei buruzko ikerketa gutxiengoa da.
HB	2003-2009 aldiko laguntza-deialdian laguntza jaso zuten proiektuek ez diete erantzun UBeren plangintzarako eta kudeaketarako beharrei	2003. eta 2009. urteen bitartean, UBeri buruzko 42 ikerketa-proiektu finantzatu ziren urteko deialdi horren bitartez; Katedraren bitartez diruz lagundutako proiektu guztien % 44 da hori. 2003-2009 aldian laguntza-deialdiaren onuradun izan ziren ikerketa-proiektuak ondoren aplikagarriak ez direla izan ikusi da. Kausak asko izan daitezke; besteak beste, honako hauek: oinarrizko ikerketa baino ez egin izana, laguntzen iraupena (3 urte) ez baitzelako behar bezain luzea ikerketa-taldeen interesetatik kanpoko ikerketa aplikatu bat abian jartzeko; gaiak espezifikoeziak zirelako; edo emaitzak ez zirelako behar adina zabaldu.

### 3.5.4 IKERKETAREN APLIKAGARRITASUN-MAILA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN PLANGINTZAN ETA KUDEAKETAN

HB	Ikerketa zientifikoaren aplikagarritasun-maila baxua Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren plangintzan eta kudeaketan	Antza denez, 2003-2009 aldian UNESCO katedraren deialdiaren esparruan diruz lagundutako eta UBeren plangintzan eta kudeaketan aplikatu daitezkeen ikerketa zientifikoena ehuneko oso baxua da. Zerbitzuaren arabera, kudeaketaren alorreko ikerketa zientifikoena aplikagarritasuna % 2-3koa da.
IG	Espezie adierazleen eta kudeaketan aplikatutako prozesu sedimentarioen eta hidrodinamikoena jarraipenak egiten dira	Gaur egun, kudeaketa-elementu gisa, EKEGen bioadierazleak diren aldetik sartutako hainbat espeziaren jarraipena egiten da. Halaber, ikerketa sedimentarioetako eta hidrodinamikoetako informazioa erabiltzen da itsasadarreko dinamika sedimentarioaren kudeaketarako eta jarraipenerako.

### 3.5.5 GARAPEN IRAUNKORRERAKO KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA HOBEA LORTZE ALDERA, DATUAK LORTZEKO IKERKETA ZIENTIFIKOEN ETA JARRAIPENEN BEHAR ESTRATEGIKOAK

**KONTSULTATUTAKO ERAGILEEN ARABERA, GAUR EGUN BEHAR ADINA GARATUTA EZ DAUDEN  
ETA DATOZEN URTEETAN LEHENTASUNEZKOAK IZAN BEHARKO LUKETEN IKERKETA-ILDO  
ESTRATEGIKOAK.**

Kontsultatutako eragileek egindako balorazioaren arabera (Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra, Urdaibai Bird Center eta Patronatuaren zerbitzua), honako hauek identifikatzen dira:

- Prozesu karstikoak eta uraren zikloa. Egungo karakterizazioa, horiei eragin diezaieketen jardunbide antropikoak eta etorkizunerako joerak klima-aldaketako agertoki batean.
- Ibaietako prozesuak. Egungo karakterizazioa, horiei eragin diezaieketen jardunbide antropikoak eta etorkizunerako joerak klima-aldaketako agertoki batean.
- Prozesu sedimentarioak eta hidrodinamikoak estuarioan. Egungo karakterizazioa, horiei eragin diezaieketen jardunbide antropikoak eta etorkizunerako joerak klima-aldaketako agertoki batean.
- Biodibertsitatearen bilakaera. Oro har, UBEn ingurumen-egoera ezagutzera zuzendutako ikerketa eta jarraipenak, eta, behar balitz, hura hobetzeko proposamenak. Abiapuntu gisa, Urdaibaiko KBEn Kudeaketa Planean ezarritako ikerketei jarraituko zaie.
- Paisaiaren dinamika. Egungo egoera eta egindako gestioaren araberako agertokiak.
- Gizarte-zientziei eta UBEn bilakaera sozioekonomikoari buruzko ildoak. Beste eskualde batzuekin alderatuta egindako analisiak. Tokiko biztanleek Biosfera Erreserbaren irudiarekiko duten pertzepzioaren bilakaera. Garapen iraunkorraren soziologia (herritarren interesak eta iraunkortasunean aurrera egiteko jarduketara estrategikoen identifikazioa), etab.
- Giza eragina BEn. Giza jardueren eragina, mugak eta kudeaketa-ereduak.
- UBEn baitako mugikortasunaren analisia. Diagnostika eta kudeaketa-ereduak, mugikortasun iraunkorra lortzeko.
- Baso-sartzeak. Nola eragiten duten lurzoruen galeran; baso-sartzeetan biodibertsitatea handitzeko neurriak. Azken urteetan, hedatzen ari da eukalipto-basoen landaketa, kudeaketa horren ondorioen analisia; tokiko hostozabalen baso-laborantzen bideragarritasuna, etab.

HB	Beharrezkoa da aurrez UBEko arazoak eta UBEn kudeaketarako dauden beharrak identifikatzeko lana egitea	Ikerketarako lehentasunezko ildoak identifikatu aurretik, dauden arazoak eta beharrak identifikatu behar dira. Garrantzitsua da ikerlanen xedea eta aholkularitzalaneekin konpondu daitekeena bereiztea; izan ere, horiek ez dira hain zehatzak, baina gauzatze-epe laburragoa izan ohi dute.
----	--	--

### 3.5.6 EZAGUTZA ZIENTIFIKOA ERRESERBAREN KUDEATZAILEEI, TOKIKO ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAGILEEI ETA, ORO HAR, BIZTANLEEI HELARAZTEKO BIDEAK

HB	Ez dago UBEko ikerketa Patronatuarekin batera koordinatzen eta hedatzen duen zentrorik	Gaur egun, ez dago Urdaibain egindako ikerketa koordinatzen duen zentrorik, hainbat ikerketalorretan egiten ari diren ikerketei buruzko ezagutza zentralizatzen duenik eta ikerketa hori hedatzeko jarduerarik egiten duenik.
HB	Badago dokumentazio-zentro bat, baina ez dago eguneratuta eta gaur egun ez dago erabilgarri	Lehen, UBEn dokumentazio-zentroa zegoen Udetxea jauregian. Gaur egun, ez dago erabilgarri Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruz egindako lan zientifiko guztiak biltzen eta indexatzen dituen zentrorik, eta horrek zaildu egiten du ezagutzaren transmisioa.
IG	Garapen Iraunkorri eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra, Urdaibain egindako ikerketaren balizko koordinaziorako erreferentzia-organoa den aldetik	Katedrak bide bat eskain dezake ezagutza eragile zientifikoaren eta Erreserbaren arduradun politikoen eta kudeatzaileen artean partekatze, eta sustatu egin beharko litzateke bide hori.
HB	Ezagutza zientifikoaren transmisioa ez da nahikoa	Oro har, ezagutza zientifikoa ez zaie behar adina transmititzen UBEn kudeaketan eta garapenean esku hartzen duten eragileei (organo kudeatzailea, gizarte-eragileak eta, oro har, biztanleak).
IG	Badaude ikertzaileen eta kudeaketa-eragileen artean ezagutza zientifikoaren transmisio arrakastatsuen aurrekariak	1997-2007 plana garatu zenean, ezagutza zientifikoaren kolektibizazioa sustatzen zuten hainbat ekintza burutu ziren (adibidez, hainbat jardunaldi tekniko-zientifiko), eta oraindik oso interesgarriak dira egungo planaren helburuak betetze aldera.

### 3.5.7 LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK

LDE 38.	Mota askotako eragileek kalitate handiko eta ezagutza-alor askotako ikerketa egiten dute UBERi buruz; eragile horietako batzuek UBERi dagokion lurraldean dituzte ikerketa-zentroak.
LDE 39.	Ez dago UBERen lidergorik UBERi buruzko ikerketa koordinatzeko, orientatzeko eta hedatzeko.
LDE 40.	Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra bat dago, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban egindako ikerketaren balizko koordinaziorako erreferentzia-organoa da.
LDE 41.	Ez dago UBERen inguruko ikerketa Patronatuarekin batera koordinatzen eta hedatzen duen zentrorik, ez eta dokumentazio-zentro eguneratu eta eraginkorrik ere.
LDE 42.	Ezagutza zientifikoaren transmisioa ez da nahikoa zientzialarien artean, zientzialarien eta UBEko organo kudeatzailearen artean, ez eta eragile sozioekonomikoekiko eta tokiko biztanleekiko ere.
LDE 43.	Ez da behar adina garatu UBEko alor sozioekonomikoei, kulturei eta kudeaketa-alorrei buruzko ikerketa.
LDE 44.	Egiaz, oso gutxi aplikatzen dira ikerketa zientifikoko proiektuen emaitzak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren plangintzan eta kudeaketan.
LDE 45.	Ez daude identifikatuta UBERen kudeaketan ikerlanen bidez konpondu beharreko arazoak eta beharrak.


### 3.6 NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIOA ETA TURISMO-ERABILERA

#### DIAGNOSIAREN HELBURUA

Ebaluatutakoa:

- Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari dagokionez, bisitariari eskainitako turismo-produktuen eskaintza kuantitatiboa eta kualitatiboa.
- Turismo-eskaintzaren kalitatea.
- Zer-nolako ekarpena egiten dioten Urdaibaiko Erreserbaren garapen iraunkorrari.
- Urdaibaiko Erreserbako turistei emandako ingurumen-kontzientziazioaren maila.
- Turismoak zer-nolako ingurumen-inpaktua eragiten duen Urdaibaiko Erreserban.
- Enplegua eta aberastasuna sortzeko ahalmena.

#### 3.6.1 BALORAZIO PARTAIDETUA



OHARRA: Inpaktua honela dago baloratuta: 1 Gehiegizkoa, 2 Esanguratsua, 3 Nabarmena, 4 Onargarria eta 5 Hutsa. Parentesien arteko datuen errotuluan, batez bestekoa kalkulatzeko oinarrian hartutako balorazio kopurua adierazi da. Partaidetzako topaketan egindako balorazioak hartu dira barnean.

### 3.6.2 TURISMO-SEKTOREKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

OINARRIZKO DATUAK 2010 (TU.2)	
Eskualdeko ohe kopurua	- 1.439 ohe/eguna - 518.040 ohe /urtea
Ostatu-gauak	- 133.845 ostatu-gau /urtea [Urteko ostatu-gauak Bilbon: 1.232.393]
Aberastasun-sorrera	- 8.030.700 € /urtea
Kanpina (establezimendu bakarria)	- 480 plaza (eskualdeko legezko kanpin bakarrian) - 50.000 ostatu-gau /urtea (40.000 ekainean, uztailean eta abuztuan). - % 100 beteta ekainean, uztailean eta abuztuan. - Batez besteko egonaldia (bungalowetan): astebete. - 40 lanpostu goi-denboraldian.
Landa-turismoa	- 26 establezimendu - 369 ohe - 32.277 ostatu-gau /urtea - Batez besteko egonaldia: 2,73 egun.
Hotelak eta ostatuak (herrigunean)	- 379 ohe - 51.568 ostatu-gau /urtea - Batez besteko egonaldia: 1,83 egun.
Urdaibain igarotzeko programatutako batez besteko denbora	- Egun bat
Erabilitako garraio-bidea	- Kasuen % 75en, nork bere autoa.

Iturria: García, A. 2012. Turismo. *in* Proceso participativo para la renovación del PRUG de Urdaibai. Informes de los expertos. Seminarios sobre Áreas de Interés Agrario y Forestal, Turismo, Industria y Energía. 7. 2. Turismo.

KULTURA-EKIPAMENDUEN ERABILERA URDAIBAIN (TU.3)	URTEKO BISITARIAK (2010)
Gernikako Bakearen Museoa	2010 - 27.506 2011 - 27.506*
Madariaga dorretxea	2010 - 25.421 2012 - 51.264**
Arrantzaleen Museoa	2010 - 13.610
Urdaibai Bird Center	2013 - 10.000**
Euskal Herria Museoa	2011 - 13.731*
Santimamiñeko kobak	2010 - 8.816
Gernikako Batzar Etxea	2011 - 32.885*
Gaztelugatxeko Doniene	2011 - 22.505*

Iturria: García, A. 2012. Turismo. *in* Proceso participativo para la renovación del PRUG de Urdaibai. Informes de los expertos. Seminarios sobre Áreas de Interés Agrario y Forestal, Turismo, Industria y Energía. 7. 2. Turismo, eta Madariaga dorretxeak eta Urdaibai Bird Center-ek emandako informazioa. \* Busturialdea-Urdaibaiko turismo-plan estrategikoa. \*\* Ekipamendu bakoitzaren galdeketak



### 3.6.3 NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIORAKO ETA ERABILERARAKO TURISMO-ESKAINTZAREN ERAGILEAK

ERAGILEAK (TU.4)	ESKAINNTZA / TIPOLOGIA	KOKAPENA
Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaritza	Administrazioa	Gasteiz
Basquetour – Turismoaren Euskal Agentzia	Administrazioa	Bilbo
Bizkaiko Foru Aldundiko Turismorako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia	Administrazioa	Bilbo
Udalak (Bermeoko, Mundakako eta Gernika-Lumoko Turismo Bulegoak)	Administrazioa	
Urremendi	Landa Garapen Elkartea	Gernika-Lumo
Turdaibai	Turismo Euskarrizko Elkartea	Gernika-Lumo
Nekazalturismoa Elkartea	Landa Turismoko Elkartea	Mendexa
Urdaibai On	Turismo kulturala eta naturakoa – Pribatua	Mundaka
Atuntxo	Turismo aktiboa eta naturakoa – Pribatua	Bermeo
Olatu	Turismo aktiboa eta naturakoa – Pribatua	Bermeo
Gernika Sub	Turismo aktiboa - Elkartea	Gernika-Lumo
Izaro-Sub taldea	Turismo aktiboa - Elkartea	Bermeo
2.000 Bela Taldea	Turismo aktiboa - Elkartea	Bermeo
Mundakako Surf Taldea	Turismo aktiboa - Elkartea	Mundaka
Portuondoko Laketontzien Elkartea	Turismo aktiboa - Elkartea	Sukarrieta
Hegaluze	Turismo aktiboa – Pribatua	Bermeo
Laga Surf camp	Turismo aktiboa – Pribatua	Ibarrangelu
Laida Kanoak	Turismo aktiboa – Pribatua	Ibarrangelu
Matxixako Nautika	Belaontzien alokairua - Pribatua	Bermeo
Mundaka Surf Shop	Turismo aktiboa – Pribatua	Mundaka
Ogoñope Surf Eskola	Turismo aktiboa – Pribatua	Ibarrangelu
Busturialdea-Urdaibai BTT zentroko harrera-puntua	Turismo aktiboa – ekipamendu publikoa	Mendata
Txof Buceo	Turismo aktiboa – Pribatua	Bermeo
Ur Urdaibai - Urdaibaiko turismo aktiboko eta abentura-kiroletako zentroa	Turismo aktiboa – Pribatua	Ibarrangelu
Urdaibai Kiroleroak	Turismo aktiboa – Pribatua	Bermeo
Urdaibai Tour	Turismo kulturala – Pribatua	Busturia
Uribarri Kiroiak	Turismo aktiboa – Pribatua	Gernika-Lumo
Urki Abentura	Turismo aktiboa – Pribatua	Sukarrieta

Iturria: geuk egina, eragileen zerrendan oinarrituta.

### 3.6.4 NATURA- ETA KULTURA-ONDAREAREN INTERPRETAZIORAKO ETA ERABILERARAKO TURISMO-ESKAINTZAREN INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK

IG	Natura- eta kultura-balio apartak dituen lurraldea	Urdaibain turismoari lotutako eragile guztiek Urdaibairen natura- eta kultura-balioak identifikatzen dituzte turismo-eskaintzaren indargune nagusi gisa.
IG	Biosfera Erreserba izendapena bera, turismo iraunkorrerako erakargarri den aldetik	Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren izendapena sustatu beharreko marka bat da, turismo-erakargarria den aldetik; bereziki, turismo iraunkorrerako eredu baten edo ekoturismoaren erakargarria. [Ekoturismotzat hartzen da honako hau: natura-ondarea zaintzen laguntzen duena, tokiko biztanleriaren ongizatea bultzatzen duena, ikaskuntza-esperientzia bat eta aktore guztien ekintza arduratsua barnean hartzen dituen, eskala txikiko negozioek talde txikiei eskaintzen dietena eta ahalik eta baliabide berriztaezin gutxien erabiltzen dituen]
HB	Turismo-produktuetan ez zaie behar besteko garrantzia ematen Urdaibaiko natura- eta kultura-baliabideei	Interpretazio-baliabideen erabilera hobetzeko aukera ikusi da Urdaibai helmuga duten turismo-produktuak sortzean.
IG	Turismo-eskaintza orokorra mota askotakoa eta erakargarria da	Turismo-jardueren eskaintza mota askotakoa eta osoa da, nola gaiei dagokienez hala hartzaileri dagokienez.
HB	Turismo-eskaintza oso atomizatuta dago	Oro har, turismo-eragileek oraindik oso modu atomizatuan garatzen dituzte sustapenak eta jarduerak, eta koordinazio- eta lankidetzeta-maila ez da esanguratsua.
IG	Koordinazio-ekimenak daude turismo-eragile pribatuen artean	Turdaibai nabarmentzen da, turismo iraunkorrerako enpresa pribatuen elkarteak; oso eragile esanguratsuak biltzen ditu, bai eta garapen iraunkorrerako interpretazio- eta hezkuntza-ekipamenduak ere.
IG	Erakarpent-indar handia duten interpretaziorako eta garapen iraunkorrerako hezkuntzarako ekipamenduak ere badaude	Madariaga dorretxeak (51.264 bisitari 2012an; % 50, helduak eta familiak) eta Urdaibai Bird Center-ek (10.000 bisitari 2013an; % 60, helduak), besteak beste, erakusten dute zer-nolako integrazio-ahalmena duen garapen iraunkorrerako hezkuntza lortzeko helburuak turismo-eskaintzan. Aldi berean, bisitari asko eguna UBEn igarotzera eramaten dituzte, eta lagungarriak dira UBEn turismo-eskaintza hedatzen laguntzeko; izan ere, presentzia dute hedabideetan eta entzute handikoak dira.
HB	Turismo-informazioa zatituta dago, eta ez dago ikuspegi integraturik	Eskualdeko turismo-eragileek eta garapen-erakundeek berek, enpresek, elkarteek, udaletako turismo-bulegoek eta abarrek hainbat bitartekoren bidez ematen dute turismo-informazioa (webguneak, argitalpenak, etab.), baina ez dago eskaintzaren ikuspegi orokorra eskaintzen duen informazio zentralizatu eta bateraturik.

HB	Ez daude argi identifikatuta sustatu beharreko turismo-balioak	Eragile guztien artean koordinazio- eta lankidetzatan bat eginez, ez dira identifikatu UBEn sustatu nahi diren ondarearen alderdiak/balioak, eta aurrez urrats hori egitea ezinbestekoa da marka bat sortzeko, eta ondoren, hura sustatzeko.
IG	Badago Turismo Plan Estrategiko bat, UBeko baliabideen interpretazio-turismoa garatzea xede duten jardunbideak barnean hartzen dituen	UBE baliabide naturalen eta sozioekonomikoen interpretazioan oinarritutako eta turismo iraunkorragoa xede duen turismo mota baten garapenean inplikatzeko duten ekintzak zehazten ditu Turismo Plan Estrategikoak.
HB	Koordinazio-ekintza ez da nahikoa Urdaibain turismo iraunkorra garatzeko bidean	Koordinazioa eta lankidetzak ez dira nahikoa UBeko Patronatuaren eta turismo-lankidetzako eta garapenerako zenbait erakunderen artean –hala nola Urremendi–, eta horren ondorioz, mugatuta daude turismo-sektorearen iraunkortasunerako ekintza eta UBeko balioen interpretazio-ahalmena.
HB	Administrazio-egitura konplexua eta eskumenak partekatuta dituen	Turismoaren alorrean Eusko Jaurlaritzaren zenbait Sailek, Foru Aldundiak, Garapen Agentziek, Partzuergoek, Udalek eta abar parte hartzen dute, eta horren ondorioz, koordinazioa eta kudeaketa oso konplexuak dira.
HB	Turismoa urtarokoa da nabarmen	UBEn, turismoa urtarokoa da nabarmen, eta puntako aldiak uda eta asteburuak dira. Horren ondorioz, presio handia jasaten du garai eta eremu jakin batean, kostaldean, bereziki; hori dela eta, eremu horrek jasate-ahalmen ekologikoa nahiz soziala edo pertzepziozkoa gainditu ditzake. Horren ondorioz, bisitaldiaren asebetetze-maila murriztu egin ohi da.

### 3.6.5 LEHENTASUNEZKO DIAGNOSI-ELEMENTUAK

LDE 46.	Natura- eta kultura-balio apartak dituen lurraldea.
LDE 47.	Ez zaie behar besteko garrantzia ematen Urdaibaiko natura- eta kultura-baliabideei.
LDE 48.	Ahalmen handia dago garapen iraunkorrerako interpretazioa eta hezkuntza UBEn turismo-eskaintzan integratzeko.
LDE 49.	Ez dago turistari eskaintzaren ikuspegi orokorra ematen dion informazio zentralizatu eta adosturik.
LDE 50.	Zenbait koordinazio-ekimen daude abian eragile pribatuen eta tokiko garapen-erakundeen artean, eta ahalmen handia dute UBEn Patronatuarekin batera UBEn helburuekin bat datorren turismo iraunkorra garatzeko jarraitu beharreko estrategia zehazteko eta adosteko.

## 3.7 URDAIBAIREN DIAGNOSI SOZIOEKONOMIKOA

UBEren eremuaren azken bilakaeraren eta egoera sozioekonomikoaren balorazioa egiteko oinarrian hartu behar da jarduera ekonomiko –eta hortaz, aztertutako eremuaren garapen sozial eta ekonomiko– bihurtuz eraldatzen diren ekoizpen-baliabideen analisisa. Lehenik eta behin, biztanleriaren bilakaera dinamika sozioekonomikoaren adierazle pribilegiatua da berez; izan ere, eragin zuzena du kontuan hartutako eremuaren jokaera demografikoan. Dinamika demografikoa eta sozioekonomikoa hertsiki lotuta daude.

Bermeo eta Gernika dira biztanleriaren eta jarduera ekonomikoaren parte handi bat biltzen dituzten herrigune nagusiak; biak ala biak komunikazio-bide nagusien ibilbide den ardatzean daude kokatuta.

### 3.7.1 BIZTANLERIA

BIZTANLERIAREN BILAKAERA (SE.1)	1996	2006	2011
Urdaibai	44.076	44.784	46.172
Bizkaia	1.140.026	1.139.836	1.153.351
EAE	2.098.055	2.133.684	2.179.815

Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Urdaibaiko eremuko biztanleria % 3,1 handitu zen 2006-2011 aldian (gutxi gorabehera, urtean batez beste % 0,6). Hazkunde apala da, baina Bizkaian (% 0,25) eta EAE osoan (% 0,4) erregistratutakoa baino nabarmen handiagoa. Biztanle gutxiko eremua da; izan ere, haren dentsitatea 163 biz./km<sup>2</sup>-koa da, Bizkaiko (356 biz./ km<sup>2</sup>) eta EAEko (301 biz./ km<sup>2</sup>) dentsitateak baino askoz baxuagoa. Gainera, biztanleriaren parte handiena Bermeon eta Gernikan biltzen da, han bizi baita Urdaibaiko 4 biztanletik 3 (% 73).

EAE osoan bezala, biztanleria nahiko zaharra da, baina beste eremu batzuetakoa baino zaharragoa. Zahartze-indizea are handiagoa da, 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa (% 21,2) EAEkoa (% 19,8) baino 2 puntu handiagoa baita. Urdaibaiko mendekotasun-indizea (lanerako adina duen biztanleriaren eta mendeko biztanleriaren arteko erlazioa) 0,61ekoa da; Bizkaikoa eta EAEkoa, ordea, 0,59koa.

Biztanleria giza kapitala ere bada; hortaz, ez dira kontuan hartu behar haren bolumena, adina eta osaera bakarrik, bai eta haren kalitatea ere. Giza kapitalaren kalitatea biztanleriaren eskolatzeta prestakuntza-mailaren bitartez kalkulatzen da. 10 urtetik gorako pertsonak kontuan hartuta – 10 urtekoak barne–, gutxienez lanbide-heziketako edo bigarren hezkuntzako ikasketak egin dituzten biztanleak % 59 dira; Bizkaian eta EAEn, berriz, gehiago: % 61. Hortaz, irizpide horren arabera, Urdaibaiko giza kapitalaren kalitatea Bizkaiko Lurralde Historikoari eta EAE osoari dagokiona baino baxuagoa izango litzateke.

### 3.7.2 EGITURA EKONOMIKOA

URDAIBAICO BEG <sub>D</sub> JARDUERA- SEKTOREAK KONTUAN HARTUTA (%) (SE.2)	2008	2010	BIZTANLERIA LANDUNA, JARDUERA-SEKTOREAK KONTUAN HARTUTA (%) (SE.3)	2010
Lehen sektorea	6,4	8,3	Lehen sektorea	6,4
Industria	21,5	21,0	Industria	21,0
Eraikuntza	18,1	9,7	Eraikuntza	8,9
Zerbitzuak	53,9	61,0	Zerbitzuak	66,7

Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Lehen sektorearen garrantzi erlatibo handia Bermeon arrantza-azpisektoreak duen garrantziaren ondorioa da; izan ere, Bermeo oso arrantza-portu garrantzitsua da, eta sektore horrek Urdaibain duen jardueraren % 62 biltzen du. Gainerako herrietako landa-osagaia ere handia den arren, haren garrantzia bigarren mailakoa da, salbuespenak salbu.

Bestalde, deigarria da eraikuntza-sektorearen beherakada handia (lehen UBEn ekonomiaren % 18 zen, eta orain, % 10 baino gutxiago), industria-sektoreak nola eusten dion, bai eta zerbitzuen sektorearen bultzada handia ere; izan ere, azken horren garrantzi erlatiboa 7 puntu handitu da, eta orain, eskualdeko ekonomiaren % 61 da. Bestalde, lau udalerrik Urdaibairen BEG<sub>D</sub>-ren % 82 dute (Gernika % 36,7, Bermeo % 34,9, Ajangiz % 5,9 eta Muxika % 4,5). Jarduera ekonomikoa oso kontzentratuta dago udalerrri gutxi batzuetan, eta industriari dagokionez, baita establezimendu gutxi batzuetan ere.

Industria-sektorearen presentzia lau udalerritarra mugatzen da: Gernika (% 32), Bermeo (% 22), Ajangiz (% 21) eta Muxika (% 10). Eta, aurreikus litekeen moduan, zerbitzuen sektorea 2 herrigune garrantzitsuetara mugatzen da: Gernika (% 45) eta Bermeo (% 34). Urdaibaiko gainerako udalerrietan sektore horren presentzia oso urria da.

Urdaibaiko ekoizpen-egitura ikusita, erraz asma daiteke zer sektoretan diharduen biztanleriak. Zerbitzuen sektorean inguruko 3 lagunetik 2k dihardu, eta sektore hori Gernikan eta Bermeon biltzen dela ikusi da; hortaz, enplegua ere bi udalerrri horietan biltzen da hein handi batean; gainera, industria-sektoreko enplegua ere bi udalerrri horietan biltzen da hein handi batean. Lehen sektoreak enplegu-iturri den aldetik daukan garrantzia arrantza-sektoreak Bermeon duen garrantziaren ondorioa da; izan ere, biztanleriaren % 6k dihardu sektore horretan (kontserba-industria kontuan hartu gabe).

16-64 URTEKO BIZTANLERIAREN JARDUERA-TASA, LANGABEZIA-TASA ETA OKUPAZIO-KOEFIZIENTEA (SE.4)									
Gernika-Bermeo	1999	2001	2002	2003	2005	2006	2007	2009	2010
Jarduera-tasa	65,4	59,9	67,1	68,3	68,4	65,3	65,8	65,3	65,8
Langabezia-tasa	13,2	6,2	4,6	7,0	3,5	5,0	3,3	10,9	10,1
Okupazio-koefizientea	56,8	56,2	64,0	63,5	66,0	62,0	63,6	58,2	59,1

Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Okupazio-koefizientea handituz joan da 2005era arte, baina data horretatik aurrera, beherantz egin du. Langabezia-tasa % 3,5etik % 10,1era igaro da; hau da, hirukoiztu egin da 2005-2010 aldian.

URDAIBAIN ETA BESTE LURRALDE-EREMU BATZUETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (SE.5)	2006 (2006ko oinarria = 100)	2009	2012
Urdaibai	100	168	236
Bermeo	100	177	266
Gernika	100	160	221
Bizkaia	100	167	224

Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Iragan hamarkadako bigarren zatian, Urdaibain erregistratutako langabezia Bizkaian baino azkarrago handitu zen; bereziki, krisialdiaren azken urteetan. Bermeon handitu zen gehien langabezia-tasa; izan ere, aldi horretan langabetu kopurua hirukoiztu egin zen ia.

BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA, LURRALDE-EREMUEN ARABERA (EUROAK). 2011 (SE.6)		
	GUZTIZKO ER.	EAE=100
Urdaibai	18.346	93.0
Bermeo	16.891	85.7
Gernika	18.325	92.9
Bizkaia	19.187	97.0
EAE	19.715	100

Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Eustaten arabera, Urdaibaiko batez besteko errenta pertsonala %7 baxuagoa da EAE osoari dagokiona baino, eta 3 puntu baxuagoa Bizkaikoa baino (deigarria da Bermeori dagokion datua).

### 3.7.3 TURISMOA

Urdaibaik gaitasun handia du turismoari eta aisialdiari lotutako jarduerak garatzeko. Bizkaiko turismo-helmuga nagusietako bat da, eta hezkuntza-eskaintza, kultura, ondarea eta natura nahasten dira bertan, bisitariari aisialdiko aukera zabala eskaintze aldera.

Bisitari kopuru handi bat hainbat arrazoi direla medio hurbiltzen da Urdaibaira, hala nola eskualdearen sinbolismoak eta Gernikak erakarrita, gertaera historikoei eta euskal kulturari lotuta; udan, hondartzek eta natura-inguruneak erakartzen dituzte bisitariak. Gainera, hotel-establezimenduen, nekazaritza-turismoko etxeen eta bigarren etxebizitzaren eskaintza ona dago lurralde osoan barreiatuta.

Oso sektore dinamikoa da. Nabarmen hazi da eta hazten jarraitzeko aukera du; bereziki, egitura egokiak bereganatzea eta inplikaturako eragile guztien arteko koordinazio ona lortzen baditu. Hala, dauden sinergiak baliatuko ditu, eta gai izango da modernizatzeko eta urte osoan bisitari mota guztiei produktu eta zerbitzu erakargarriak eskaintzeko, ez udan bakarrik.

### 3.7.4 BASERRI-GIROKO URDAIBAI

Urdaibairen azaleraren zati handi batek landatar kalifikazioa du, tradizioz nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jardueretara emandako lurrak izan baitira. Urdaibaiko udalerrri askoren landatar izaera iraganean lehen sektoreko jarduerak (nekazaritza eta arrantza) izan duten garrantziak berresten du. Hala ere, beste eremu batzuetan bezala, lehen sektoreak nabarmen galdu ditu protagonismoa eta garrantzi ekonomikoa, eta biztanleriari lana emateko eta landunentzat behar adinako errentak sortzeko gaitasunaren etengabeko galeraren bidez adierazten da hori. Nekazaritzako lurrak (NAE) uztea arazo ekonomikoa eta ingurumen-arazo larri bat izan daiteke epe ertainera.

Gernikako eremuko nekazaritza-produktuen ospe ona ukalezina den arren, Urdaibaiko ekoizpena baratzeazaintzako eta frutagintzako ustiategi gutxi batzuetara mugatzen da. Kasu gehienetan, bigarren mailakoak dira, errenten osagarriak, bai eta hirugarren mailakoak ere, autokontsumora zuzenduak; oso urriak dira baratze- (berotegia eta/edo aire zabalean) eta fruitu-jardueretan espezializatutako ustiategiak.

Baso-sartzeek eginkizun sozioekonomiko garrantzitsua izan dute, baina duela hamar urtez gero, gutxi gorabehera, jarduera hori gainbehera azkarra jasaten ari da, eta basoko lurzoruaren beste erabilera batzuen inguruan galderak egitera bultzatzen gaitu horrek.

Ustiategien ekoizpen- eta enpresa-birmoldaketa eta haien jabeak prestakuntzaren bitartez birziklatzea ez da beti lortzen erraza, nahiz eta doikuntza horiek bultzatzeko politikak egin diren. Hala ere, UBEEn irudimenez betetako formulak probatu beharko dira, natura-ondarearen alderdi hori gordetze aldera.

Gaur egun, gutxieneko izaera duten berrogeita hamar nekazaritza-ustiategi daude. Gernikako eta Bermeoko azokak kudeatzen dituzten udal-iturrien arabera, azoka horietara oso baserritar gutxi bertaratu ohi dira.